

OIHANAREN DEIA

BOOKTEGI

JACK LONDON





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JACK LONDON

oihanaren deia

Itzulpena:

Gillermo Etxeberria

I. ASPALDIKO GARAIETAN BEZALA

Buckek ez zuen egunkaririk irakurtzen. Bestela jakingo zuen, noski, zenbait gizon bera eta bere antzeko zakur bila zebiltzala. Zakur indartsu eta iletsuen bila. Artikoan ibilian-ibilian gizonak metal horia bat aurkitu zuten. Geroztik, itsas enpresek eta beste, berri hori zabaltzeko, milaka eta milaka abenturazale abiatu ziren ipar aldera. Gizon hauek zakurrak behar zituzten. Zakur etsiak, indartsuak lan egiteko eta bazter haietako hotza etsitzeko iletsuak.

Buck etxe handi batean bizi zen, ibar zabal eta eguzkitsu batetan. Miller jaunaren etxaldean. Etxea zuhaitzez inguratua zegoen. Bertara joateko harri zintzarrez egindako bide bat ikus zitekeen. Etxalde hura oso handia zen. Zaldiak erruz ikusten ziren. Morroientzako etxeak, artzaintzarako belazeak, baratzeak, lorategiak eta abar... Bazegoen bonba bat ere, ura lur azpitik ateratzeko. Eta ondoan urmael eder bat, Miller jaunaren semeak freskatzeko.

Buck bazter guzti haietako nagusi bakarra zen. Baziren han, noski, beste zakurrak ere: Toots, edo Isabel, eta foxterrier batzuk ere. Baina Buck ez zen etxe zakur, pilan bizitzeko jaio zen horietakoa. Etxalde guztia berea zuen. Berak eginkizun bereziak zituen. Epaille jaunaren alabei eskolta eman. Edota gauetan epaillearen ondoan etzan, su bazter goxoan. Berak zaintzen baitzuen.

Bere aita, Elmo ere, epaillearen lagunik onena izan zen. San Bernardo zakur handi bat zen hura. Berak, gero, aitaren bidea hartu zuen. Baina aita baino txikiagoa zen gorputzez. Izan ere bere ama, Shep, artzain zakurra izan zen. Baina, han leku egokian bizitzeak eta halako bizimodu onak, eman zion itxurazko aire berezi bat. Ez zen, ordea, zakur etxezulo mimatu horietako bat. Berari kanpoko bizimodu alaia gustatzen zitzaion, ehizan ibiltzea. Mainontzi eta biguna ez izan arren, bizimodu hark berekoia eta harroa bihurtu zuen.

Honelakoxea zen, bada, gure zakurra, Klondiken (1897 urteko udazkenean) urrea aurkitu zutenean. Han zihoazen ipar izoztura mundu guztiko gizonak. Baina, lehen esan dugu, Buckek ez zuen egunkaririk irakurtzen eta ez zekien delako Manuel izan zitekeenik etsairik handiena. Manuelek lore baratza zaintzen zuen eta bazuen grina bat: Txinako loteriarra jokatzeko.

Egun hartan, epaile jauna ez zen etxean, ze mahats langileen bilera batean baitzen. Mutil bakoitzak bazuen nahiko lan bere buruarekin eta inor ez zen konturatu Manuelen saldukeriaz. Inork ez zuen ikusi Buck zakurra baratzean zehar eramaten. Zakurra bera ere paseo huts bat zelakoan jarraitu zitzaion.

Gizon batek besterik ez zuen ikusi Manuel, College Park izeneko tren geltokira zakurra eramaten. Gizon honek Manuelekin hitz egin zuen eta diru trukean saldu zion.

— Zerbait saltzen denean ezkutatuta ekarri behar da — esan zion haserre ezezagun hark. Eta Manuelek soka lodi bat pasa zion zakurrari lepotik. — Bihur ezazu eta zentzurik gabe utziko duzu — esan zion Manuelek. Ezezagunak buruarekin baiezkoa eman zion.

Buckek isil-isilik onartu zuen lepotik jarri zioten soka. Harritu zen pixka bat, baina aspalditik gizonengan fede handia zuen. Eta orduan ere, arrazoiak izango zituztela horrela jokatzeko pentsatu zuen. Baina soka haren muturra ezezagunaren eskutara pasa zenean, garrasi egin zuen. Ez zegoen pozik. Bere lehengo munduan adierazpen bat, agindu bat zen. Baina, alderantziaz, soka bere lepoan gogor estutu zen ia ito arte. Haserre eraso zion gizonari, baina honek heldu zion lepotik eta bihurteta trebe bat eginaz, lurrera bota zuen. Soka berriz, ikaragarri estutu zitzaion. Alferrik izan zen Bucken amorraziozko borroka. Sekula ez zuten bizi guztian honela tratatu eta behin ere ez zen hain basati eta haserre sentitu. Baina bere indarrak agortu ziren, begiak kristalezko bihurtu zitzaizkion eta trena geratu zenean, bera konturatu gabe, bagoi batetara bota zuten bien artean.

Indar berritu zenean, mingainean mina sentitzen zuen, eta bidaia bat egiten ari zela iruditu zitzaion. Lokomotorak txistu jo zuen. Orduan konturatu zen non zegoen. Epaile jaunarekin ere ibilia zen, eta bazekien kargak eramateko bagoia zela hura. Ireki zituen begiak, eta gorrotoz betetako errege tronurik gabeko baten antzeko keinua egin zuen. Gizona saiatu zen Bucki lepotik heltzen. Baina Buck bizkorragoa izan zen. Eta egundoko hozkada eman zion eskuan. Baina lepotik zeraman sokak zentzua galarazi zion.

— Bai, bai — esan zion gizonak treneko arduradunari zarata hartan etorri zenean. Atakeak ematen dizkio. Nire nagusiak aginduta San Frantziskora daramat. Han badago albaitari bat.

Berak sendatuko duela uste dugu.

Gizon harentzat bidaia hura ez zen batere atsegina izan. San Frantzisko deritzon portuan gizon batekin taberna atzean hitz eginaz hala esan zion:

— Ez ditut 50 dolar besterik irabazten! Beste milagatik ere ez nuke honelako ibilaldirik egingo. Zapi odoldu batetan bildua zeukan eskua eta galtzak, berriz, belaunetik beheraino zeharo urratuak.

— Zenbat irabazi zuen besteak? — galdetu zion tabernariak.

— Ehun. Ez zuen sosik ere merkatu nahi izan.

— Ehun eta berrogeita hamar — kalkulatu zuen tabernariak. Balio ditu eta gehiago ere bai. Bestela, ni tonto hutsa naiz.

Bahitzaileak eskuko zapia kendu eta esku odolduari begiratu zion:

Buckek sekulako mina sentitzen zuen lepo eta mingainean; erdi itota zegoen. Buck bere torturazaitelen kontra hasi zen. Baina hauek, lurrera bota zuten eta oraindik ere soka gehiago estutu zioten. Gero kendu zioten eta enbalatzeko kaxa batean, kaiola antzeko batean, sartu zuten.

Han pasa zituen gau hartako orduak, amorrazioz beterik eta bere harrokeria ezin bareturik. Ezin zuen ulertu zer gertatzen zen. Zer nahi zuten ezezagun haiek? Zergatik sartu zuten halako kaiola txar eta hertsia batean? Ez zekien zergatik, baina laster zerbait ikaragarria gertatu behar zitzaiola pentsatzen hasi zen. Gauean ere, aterpe hartako atea irekitzen zen bakoitzean, oraindik ere salto batean altxatzen zen. Eta pentsatzen zuen Miller epaile jauna edo bere mutilen bat azalduko zitzaiola. Baina alferrik. Tabernariaren aurpegi sebotsua, erdi ilunetan bera zaintzera etortzen zelarik. Orduan eztarritik gora hasten zitzaion zaunka alaia bertan ito eta oihu haserre bihurtzen zitzaion.

Baina tabernariak ez zuen haserrarazi. Hurrengo goizean lau gizon azaldu ziren eta kaiola bizkarretan hartu zuten: “Oraindik ere torturatzaille gehiago”, pentsatu zuen Buckek; eta, benetan, hala ziruditen, beren mutur beltz eta jantzi zarpail haiekin. Ate burdinen atzetik amorrazioz zaunka egin zien. Baina gizon haiek, barre egin zuten. Baita ere, noizbehinka, makil batekin xaxatzen zuten haserrarazteko. Buckek makila hura harrapatzen nahiko lanak bazituen. Azkenean konturatu zen bera zirikatzeke egiten zutela. Eta besterik gabe, etzan zen, eta kaiola gurdi batean sartzen bakean utzi zien. Ordutik aurrera, bera eta bera zeraman kaiola esku esku aldatuz joan zen. Garraiatzaileak beste bagoi batera igo zuten; kamioi batek beste hamaika kaxekin batera, lurrin bapore batera eraman zuen; handik berriro trenbide bateko depositu batera itzuli zen. Azkenean tren batek eraman zuen.

Hantxe joan zen tren hura bi egun eta bi gauen buruan, lokomotora zaratatsu batzuk garraiatua. Ez zuen ez jan eta ez edan. Bere amorru bizian, bertako langileen keinu guztiei zaunkaz erantzuten zien. Hauek berriz, orduan, barre eta iseka egiten zioten. Kaiola burdinen kontra dardaraz eta bitsa zeriola jaurtitzen zen bakoitzean, besteek barre egiten zioten. Zakur zaunka itxura egiten zioten. Bera konturatzen zen iseka egin nahi zutela. Baina orduan eta haserreago sentitzen zen bere harrokeriagatik. Bere amorrua gehiagora joaten zen. Ez zitzaion gosea hainbeste axola, baina egarria bai, hori bai. Horrek oraindik ere erotzeraino haserretzen zuen. Urduri eta hain sentibera jarri zelarik, horrek guztiak halakoxe sukar egonezin bat erakarri zion.

Gauza batek pozten zuen, behintzat: sokarik ez zuen lepotik. Kendu egin zioten. Berarekin lehen erraz menderatu zuten. Orain, ordea, ez zuten gehiago oinperatuko. Ez zioten barrerik gehiago egingo. Horretaz ziur zegoen. Ez zioten berriro halako soka zerririk lepotik ipiniko kaiolatik irteteen. Bi egun horien buruan ez zuen ez jan, ez edan. Baina hainbeste umilazio egin ziotelarik, bere etsaiekiko gorrotorik zorrotzena pilatu zuen barnean. Ez zen giro izango haren aurrean jartzen zen lehenengo pertsonarentzat. Begiak ere odol bizitan bihurtu zitzaizkion. Bene-benetan, animalia basati bat bihurtu zen; hain aldatua zegoelarik, ez zuen hura ezagutu ere egingo epaile jaunak berberak ere. Burdin bideko langileak ere lasaialdi ederra hartu zuten, zakur hura, azkenean, Seattle herrian deskargatu zutenean.

Beldurrez eraman zuten arrastaka lau mutilek kaxoi hartan patio hertsu batera; horma altuak zituen patio itxi batera. Han bazegoen gizon lodi bat, zamarra gorriarekin. Buckek hura ikusi zuenean, pentsatu zuen:

— Horra, dudarik gabe, hau ere beste torturazailerik bat izango da.

Eta kaiola barroteen kontra jaurti zen. Gizonak irribarre hotz eta maltzur batez erantzun zion. Eta esku batean aizkora eta bestean eskumakila hartu zituen.

— Ez duzu, noski, orain askatuko, ez da? — galdetu zion mutil batek zamarra gorridun gizonari.

— Bai, noski — erantzun zion gizonak.

Eta aizkorarekin dinbi-danba kaiola puskatzen hasi zen. Lau gizonak, beldurraren beldurrez, ihes egin zuten, eta horma gainera igo ziren gerta zitekeena ikusteko.

Buck hozkaka hasi zen erdi puskatutako egurren kontra. Gizonak kolpe bat ematen zuen bakoitzeko, han zegoen bera bere hortz eta haginak non finkatuko. Gizona bezain gogotsu zegoen kaxa zahar hartatik kanporatzeko.

— Hala, ero hori — esan zion zamarra gorrizko gizonak zuloa ireki zuenean, atera hadi. Agudo. Eta aizkora ezkerrean paseaz, eskuinean eskumakila hartu zuen.

Buck atera zen etsai amorratu bat bezala, eta prestatu zituen gorputzeko gihar guztiak herio saltoa egiteko gizonaren aurka: ilea tente eta bitsa zeriola, begiak odol bizitan. Itsu-itsuan salto latza egin zuen zamarra gorridun gizonaren aurka. Salto bizian, oraindik ere airean zegoela eta bere hortz amorratuak tinkatzera zihoan une berean, hartu zuen hezurretan kristoren makilakada eta kolpeak geldiarazi zuen. Bere hortzak min batean hertsu ziren. Eta besterik gabe, lurrera erori zen. Behin ere zigorrada bat hartu gabekoa zen, eta ez zekien garbi zer gertatu zitzaien.

Eta berriro oihu bizi eta garratz bat jaurtiaz, eraso zuen. Beste zartada gogor eta latz batek

geldiarazi zuen bertan kolpean. Orduan hain itsua zegoenez gero, beste bi aldiz jaurti zen gizon haren kontra. Beste birritan kolpe berri batek geratu zuen, eta lur gogorreraino makurtu zuen. Gehiegia izan zen beretzat. Eta ia ezin altxa zela utzi zuen. Ia ez zuen indarririk borrokarako. Zutitu zen nolabait. Eman zituen pauso batzuk, ahal zuen eran, odoloduta, belarrietatik odola zeriola, ile guztia ere odolotan. Inguratu zitzaion gizona eta muturrean ikaragarritzko zigorrada eman zion. Orduko kolpe guztiak txikiak ziren haren ondoan. Marru latz bat botaz abiatu zen gizon zamarra gorridunaren aurka. Baina honek ez zion beste kolperik eman. Heldu zion matrail hezurretatik eta jira bat emanaz, muturrez behera lurraren kontra bota zuen. Azkeneko aldiz eraso zuen. Orduan gizonak, kolpe sekretu bat, orain arte erabili ez zuen bat, eman zion eta Buck lurrean etzan zen zentzurik gabe.

— Hori duk, hori, txakurrak bezatzea, — esan zuen horma gainetik mutil batek.

— Hori, hori — erantzun zion bestek.

Poliki-poliki, Buck zakurrak zentzua bereganatu zuen, baina ez indarra. Han geratu zen lur gainean zamarra gorritzko gizonari begira.

— Buck du izena — esaten zuen honek eskutitz bat irakurriaz. Beno, Buck — esaten dio irribarrez—.

Borroka pixka bat egin dugu, baina ez da ezer ere. Ez dadila gehiagora pasa eta kito.

— Bazirudien umore ona zuela. Zuk ikasi duzu zein den zure lekua eta zein den nirea. Porta zaitetz ondo eta hobekiago ibiliko zara. Bestela hezurak hautsiko dizkizut. Ulertu al duzu?

Hori esaten zion bitartean, inongo beldurrik gabe, lehen hain gogor jo zuen zakurraren burua ferekatu zuen. Buckek ez zuen erantzunik eman. Baina gizonak edateko ura ekarri zionean, gogoz eta gustura edan zuen. Hurrena berak ekarritako haragi ugari eta gozoa irentsi zuen.

Galdu egin zuen; bazekien. Baina ez zegoen azpiratua. Behin betirako ulertu zuen, ezin zezakeela ezer zigorra zuen gizon baten kontra. Ongi ikasi zuen, eta ez zuen gehiago ahaztuko.

Egunak joan egunak etorri, beste zakurrak etorri ziren: batzuk soka simple batez; besteak kaiolatan, bera bezala. Denak pasatzen ziren zamarra gorrizko gizon haren eskutatik. Behin eta berriro ikusi ahal izan zuen hark eman ohi zuen egurra. Eta ikasi, ongi ikasi ere ikasgai hura: gizon batek makila eskutan duela, erne ibili: bere esana bete behar da. Beharbada zurikeriak egin ere bai. Buck, noski, ez zegoen prest horrelako gauzarik egiteko. Baina bat baino gehiago ikusi zituen, isatsa mugituaz gizonari diosala egiten. Zakur bat ere ikusi zuen zigorpean hiltzen, gizonaren legera jarri nahi izan ez zuelako.

Noiz behinka zenbait gizon azaltzen zen, zamarra gorridunarekin hitz egitera. Holakotan, diru truke zenbait zakur eramaten zituzten. Buckek beti bere kolkoan zera zioen: “Nora ote daramatzate zakur horiek?”. Berak geroari bazion beldurra. Eta aukeratzen ez zuten bakoitzean asko pozten zen.

Baina halako batean, hara nondik nora gizon ximur batek berari begira esaten duen:

— Hau duk zakurra, hau! Zenbat balio du?

— Hirurehun. Eta ez pentsa garestia denik — erantzun zion zamarra gorrizko gizonak.

Eroslearen izena Perrault zen. Eta ez zitzaion garesti iruditu. Bazekien hark oso goitik jotzen zuela zakurren diruak. Perraultek oso ontzat jo zuen zakur hura. Milen tartean behin azaltzen diren horietakoa.

Esan bezala, diru trukean, nagusiz aldatu zen Buck eta beste zakur bat, Curly izenekoa. Han joan ziren ximurrez jositako gizon harekin. Orduan ikusi zuten azkeneko aldiz, zamarra gorrizko gizona. Eta bi zakurrek besterik gabe, begirapen triste batez, hego aldeari agur egin zioten. Perrault honek, gizon handi-mandi bati eman zizkion zakurrak. Frantzisko zuen izena. Bucki ez zitzaion gehiegi axola izen hori. Ez zituen maite, baina errespetu latza sentitzen zuen haiengan. Jatorrak ziruditen, lasaiak.

“Narwhal” izeneko itsasontzi batera sartu zituzten. Hango bodegan beste zakur batzuekin topatu ziren. Bazen bat, handi handia, elur txuria bezain txuria. Irribarretsua zen baina beti

tranpak egiteko prest zegoen. Adibidez, batzuetan Bucken janaria osten zuen.

Beste zakurra tontoagoa zen, eta ez zen inorekin sartzen. Ez zen gauza inoren janaria lapurtzeko. Bakarrik egon; besterik ez zuen nahi. Eta hori, bai, hori lortzeko borroka egitera prest zegoen. Dave zuen izena, eta egon eta lo egin besterik ez zuen egiten.

Itsasontzia han zihoan gau eta egun, aurrera eta beti aurrera. Egun guztiak berdinak ziren. Makinen dardara besterik ez zen nabaritzen han barruan. Baina Buck hasi zen konturatzen alderdi berri haietan hotz gehiago egiten zuela. Gero eta gehiago. Azkenik egun batean itsasontziaren helizea geratu zen. Narwhal izeneko itsasontzian egonezin berri nabaritzen zuen. Zakurrak konturatu ziren, laster, berriro aldaketaren bat inguratzen zela. Franziskok, sokak jarri ontzi gainera eraman zituen. Buckek lur hotz hartan lehenengo pausoak eman zituenean, bere hankak zerbait txuri eranskorrean sartzen zirela konturatu zen. Atzeraka eman zuen pauso bat. Gauza hori berbera erortzen zen goitik behera. Astindu zuen bere ilea, baina gero eta gehiago erortzen zen. Usnatu zuen, eta mingainarekin frogatu ere bai. Suak bezala berotzen zuen, baina gero desegin egiten zen. Berriro esperientzia bera egin zuen eta ondorioak berberak izan ziren. Begira zeuzkan gizonak eta barrez lehertzen jarri ziren hori ikusita. Buck, berriz, lotsa-lotsa eginda. Zergatik ordea? Hain zuzen, lehenengo aldiz elurra ikusten zuen.

II. EGURRA ETA HAGINKADAREN LEGEA

Bazen inguru haietan Dyea izeneko hondartza bat. Han egin zuten lehenengo eguna, Buckentzat beldurgarria izan zen. Une bakoitzean zer gerta ere ezin zitekeen jakin. Kolpe batez, mundu zibilizatu batetik atera eta aspaldiko legeetara bota zuten. Geroztik bere bizitza ez zen izango lehen bezain atsegin eta lasaia. Orain ez zegoen ez deskantsurik, ez ziurtasunik. Dena nahasketa bat zen; une batean eta konturatu gabe, gal zitekeen bizia edo hanka bat. Erne egon beharra zegoen, zeren gizon eta zakur haiek ez baitziren fidatzekoak. Basati hutsak baizik. Denak berdinak ziren, eta ez zuten egurra edo haginkadaren beste legerik ezagutzen.

Ez zuen behin ere halako zakur borrokarik ikusi. Hantxe ikusitako gertakari hark ileak tente jarri zizkion. Egia esan, asko balio izan zion. Ez, noski, berari gertatu balitzaio, ez baitzen bizirik aterako esperientzia hartatik. Hain zuzen Curly, bere zakur lagunari pasa zitzaion. Gertakari penagarria benetan. Curly zakur hau, hain maitagarria izanik, han inguratu zitzaion beste zakur bati: husky arrazakoa, eta otso handi baten neurrikoa. Hala ere, bere erdia baino gehiago ez zen izango. Inongo abisurik gabe, delako husky horrek eraso zuen izugarrizko haginkada bat emanaz: Curlyren aurpegia alderik alde ebakitzera. Eta besterik gabe, txakur hark alde egin zuen.

Horrela borrokatzen dira otsoak ere: lehenengo eraso, eta gero alde egin. Une berean beste 30 edo 40 husky inguratu ziren borroka lekura. Buck harrituta zegoen husky sail haren isiltasuna eta bere miazkatze gozo haiek ikusiaz. Curlyk ekin zion etsaiari baina honek, beste haginkada ikaragarri bat emanaz alde batera salto egin zuen. Hurrena ere, berriro Curly zoritzarrekoak eraso zioenean, husky horrek bularrarekin geratu zion kolpea eta halako mugimendu berezi baten bidez, bota zuen lurrera, gehiago ez altxatzeko. Honen zain zeuden beste 30 edo 40 zakurrak. Zaunka jaurtiki ziren eta haien azpian ezkutatu zuen Curlyren gorputza.

Dena izan zen ustekabekoa eta une batekoa. Buck zeharo harrituta. Bazen han Spitz izeneko zakur bat. Gertatutakoa ikustean irribarre egin zuen. Une berean Frantzisko aizkora eskutan zuela han joan zen zakur taldearen erdira. Berarekin beste hiru gizon ere hantxe inguratu ziren eskumakilak zituztela. Bi minututan astindu eta desegin zuten zakur talde hura. Baina zakurra han zegoen lurrean, hilda, deseginda. Frantzisko biraoka hasi zen, baina alferrik eta berandu.

Egun askoren buruan Buckek ezin izan zuen gustura lo egin. Beraz, orain bazekien han nola egiten zen borroka. Erortzen zenarentzat ez zegoen errukirik. Ez joko garbirik. Spitz zakurrak, berriro mingaina atera zuen, eta berriro irribarre egin. Buckek hori ikusi zuenean, bere kontra izugarritzko gorrotoa hartu zuen.

Susto hartatik bizkortu baino lehen, Buckek beste bat ere izan zuen. Larruz eta gerriko belarriz egindako zakur-tresna bat zen. Halakoak ikusiak zituen Miller epailearen etxean zaldientzat. Geroztik zaldi haiek bezala lan egin beharra izan zuen, lera garraiatuaz Frantziskorekin. Mindua sentitu arren bere barruan, bazekien onena isiltzea zela. Bere ekintzan gogor saiatzen zen. Frantzisko gogorra zen eta zigorraren bidez inposatzen zuen bere legea. Dave zen beste zakur baten izena. Buck nahasten bazen horzkada botatzen zion atzeko hanketara. Buck aurrean joan ohi zen. Eta ezin zion Daveri haginkadarik bota. Spitz zen bestea lerarekin ibiltzen iaioa zenez, bere pisua Buckengana botatzen zuen, hau bide okerretik hasten zen bakoitzean. Beraz, gure Buck zakurrak, bi haiekin eta Frantziskorekin ikaragarri aurreratu zuen. Kanpamendura itzuli zenerako bazekien “so” esateak, gelditzeko esan nahi zuela eta “arre” hitzak abiatzeko.

Kurbak, bihurguneak zabalak hartu behar zirela, eta goitik behera takatan abiatzen zirenean inguruko zakurretatik urruti mantendu behar zela.

— A ze hiru zakur ditugun — esaten zion Frantziskok Perraulti. Buck honek, deabru batek baino gehiago tiratzen du.

Arratsalde hartan, Perrault jauna, beste bi zakurrekin itzuli zen. Bere izenak: Billee eta Joe. Anaiak ziren eta husky odolekoak. Baina bata eta bestea, zein baino zein desberdinagoak. Billee, oso umore onekoa zen, beharbada, leku haietako onegikoa. Joe, berriz, zeharo alderantzizkoa zakarra eta erretxina. Ezer gabe kurruxka egin ohi zuen esne txar horietakoa. Buckek irribarrez onartu zituen. Davek ezikusia egin zien. Spitz ordea, lehenengo saiatu zen batekin borroka egiten eta gero bestearekin. Billeek adiskideki buztana mugitzen zuen. Baina ihes egin ere bai, hori alferrik zela ikustean. Negar ere egin zuen Spitz txarraren haginak bere saihetsetan finkatu zirenean.

Han hasi zitzaion Spitz, Joeri jira biraka. Baina honek bere ileak triku antzera jarriaz, kontra

egiten zion, hortzak eta begiak maltzurki erakutsiaz. Ez zen hura txantxetako zakurra. Haren itxura beldurgarriak atzeratu zuen Spitzen gogoia. Baina gero, bere anaiarekin nahi zuen guztia egiten zuen. Kanpamendu guztian atzetik jazarriaz, jazartzen zion, koska eta burla.

Ilunabarrean Perraultek oraindik ere beste zakur bat ekarri zuen, zaharra, argala, mutur guztia zauri markaz betea eta horrez gainera, begibakar. Sol-Leks zuen izena. Zakur artera sartu zenean, inor ez zen haren kontra jarri. Spitz berak ere bakean utzi zuen. Bazuen berezitasun xeble bat. Eta hau zen: ez zitzaion gustatzen begi falta zuen lekutik inor inguratzerik. Buckek ere laster ikasi zuen hori. Zeren eta, asko pentsatu gabe, handik inguratu zitzaion bezain laster, haginkada latz batez bularra odoldu zion. Ordotik aurrera ez zitzaion gehiago handik inguratu eta geroztik ez zuten haserre txikirik ere izan. Sol-Leks horrek bakean uztea nahi zuen, besterik ez.

Gau hartan Buckek ez zuen erraz lo egin. Zelaian ikus zitekeen kanpamendua kandela baten argipean, goxo-goxo. Han sartu zen, baina laster eraso zitzaizkion Frantzisko eta Perrault, biraoka eta erratz kolpeka. Ez zuen asko pentsatu han egon ezin zitekeenik. Haize hotzak ebakitzen zituen bazterrak. Bere bizkar minduan nabaritzen zuen batik bat. Elurretan etzan zen. Ez alferrik. Han ezin zen lorik egin. Abiatu zen denda tartean, batera eta bestera, non epelago aurkituko. Baina gero eta hotzagoak aurkitzen zituen lekuak. Zakur basatiekin ere topatu zen. Baina ileak tente jarriaz, aurpegi ematen zien eta ahal zuen sendoen kurruxka eginaz. Denak pasatzen uzten zuten. Harritzekoa zen zein ondo ikasi zuen bere burua defendatzeko modua.

Azkenik zera bururatu zitzaion. Lehengo lekura itzuli eta besteak zer egiten zuten ikustea. Baina, hara, bere harridura: han ez zegoen inor. Denak desagertu ziren. Abiatu zen alde batetik bestera, lehengo lekura itzuli arte. Non ote zeuden? Denda barruan, agian? Ezin zitekeen, bestela bera ez zuten era txar hartan bidaliko. Non, orduan? Bere buztana tristeki hanka tartean sartuaz, kanpamenduaren jira bira hasi zen. Halako batean, bere hankapean elurra desagertzen zela kontura zen. Azpian zerbait mugitu zitzaion. Jo zuen atzera, urduri eta kizkurtua, zer ote zitekeen beldurrez. Baina intziri triste bat entzun zuen eta honek zer ote zen ikustera animatu zuen. Lurrin epel laino bat igo zen bere muturreraino: han zegoen Billee, lotan elurpean. Mogitu zen apurtxo bat, lagun zuela adierazteko eta muturra milizkatu ere egin zion

Bucki.

Hara gero nondik. Beraz, horrelako lekutan lo egiten zuten zakurrek? Ongi, Buckek ahalegin gogorra eginaz, egin zuen beretzat zulo berri bat. Sartu zen han. Laster, gorputzeko epeltasunak zulo hura gozatu zuen bezain laster, Buck lo seko gelditu zen. Eguna luzea izan zenez gero, Buckek sakon eta egoki lo egin zuen. Amets batzuk gora behera, baina ongi.

Kanpamenduko zaratarekin esnatu zen. Aurrena ez zekien non zegoen ere. Elurra egin zuen gauez, eta zeharo elurpean zegoen. Elurrak, zeharo estaltzen zuen eta beldurtu ere egin zen, tranpa bat ote zen pentsatuaz. Zakur basatiak beti izan ohi dute tranpetan erortzeko beldur ikaragarria. Seinalea noski, pixkana-pixkana, berriro ere bere aurreko arbasoen egoera ez zibilizatura itzultzen ari zela. Berak zakur zibilizatua izanik, ez baitzuen tranpa eta horrelakorik ezagutu.

Gogortu zituen bere gorputzeko gihar guztiak, eta bere bizkar zabala astinduaz, laino bat bezala airean bota zuen bere gaineko elur txuria. Berehala ikusi ahal izan zuen egun berriaren argi dirdiratsua. Orduan, gogoratu zituen zuloa egin zuenetik gerora gertatutako gorabehera guztiak.

Frantziskok ikusi zuenean, zera adierazi zuen:

— Ikusten nik diodana. Buck zakur honek dena ikasten du, eta azkar gainera!

Perraultek ez zion ezezkorik esan. Bera zen, zirudienez, Kanadako gobernuaren posta eramaile. Horretarako zakur onenak behar zituen. Beraz, pozik zegoen Bucken nagusia zelako.

Beste ordubeteren buruan, hiru zakur berri elkartu ziren zakur-talde berean. Beste hiru husky. Beraz, denetara bederatzi baziren. Ordu laurden bat pasa baino lehen zakur-tresnak jarrita abiatu ziren Dyea izeneko mendi lepora. Pozik abiatu zen Buck. Lana gogorra zen, baina ez zitzaion etsi ezina iruditu. Denak animatuta zihoazen, harritzeko gauza. Bera ere berehala animatu zen. Dave eta Sol-Leks bi zakurrak zeharo antzaldatuta zeuden Zakur-tresnak jarri bezain laster, beste batzuk ziruditen. Galdu zituzten lehengo egon beharra eta arduragabekeria

guztiak Besterik ez zuten gogoan: bidaia ondo egin, guztion artean lana arinduaz egin, eta norbait nahasten bazen haserretu egiten ziren. Bidean zeramaten ekiteak zirudien haientzat zela helburu bakarra. Hura ondo egin, hori eta besterik ez.

Dave Bucken aurretik lotua zihoan eta atzetik Sol-leks. Beste guztiak ilaran zihoazen, Spitz lehenengoa zelarik. Buck, bi zakur hauen artean jarri zuten, ikas zezan. Bera ikasle ona baldin bazen, bere bi irakasleak ere ez ziren txarragoak. Ez zioten bi aldiz huts egiten uzten, eta haginka erakusten zioten bestela. Dave zorrotza zen. Baina ez zion behin ere arrazoirik gabe Bucki koskarik egiten. Eta, noski, Frantziskoren zigorrak beti Daveri ematen zion arrazoa. Halako batetan geldiene bat egin zutenean, Buck, aho soka tartean nahaspilatu zen. Eta bi zakur lagunek egur galanta eman zioten. Baina egun hura bukatu zenerako, lana ederki asko ikasi zuen eta zakur lagunek ez zioten ez begiratu txarrik ez koskarik egiten. Perrault bera ere harrিতua zegoen eta Bucken hankak begiratu zituen, nola zeuden ikusteko.

Mendi lepoa igarotzen egun osoa behar izan zuten. Hainbeste traba aurkitu baitzituzten. Haien artean, pasa beharra izan zuten Chilkoot mendikatea. Hark zatitzen ditu ur geza eta gazia eta arretaz zaintzen dut ipar alde triste hura.

Eguraldi ona izan zuten itzalitako sumendi gaineko krater eta bertako zingirak pasatzen zituzten bitartean. Gau erdi aldera iritsi ziren, azkenik, Bennet zeritzan laku ingurura. Kanpamendu zabal bat ikus zitekeen han. Jende asko bizi zen, urre bila joandako jendea noski, negu guztiak itsasontziak egiten jarduten zuten, gero udaberriari, edo izotz-urtze garaian erabiltzeko. Buckek egin zuen lurrean bere zuloa eta nekatua zegoenez, sakon egin zuen lo; baina hurrengo goizean, oso goiz, esnatu eta beste lagunekin batera, lotu zuten berriro elur-lerari.

Egun horretan hirurogeiren bat kilometro igo ziren gorantz, bidea ona baitzegoen. Baina hurrengo eguna ez zen hain egokia izan, ez zegoen, bada, bide eginik, eta beraiek, nolabait egin behar zuten hura. Normalki, Perrault jauna aurretik joan ohi zen, txakurren bide irekitze hura errazteko. Frantziskok elur-lera gidatzen zuen, eta batzuetan Perraulti txanda hartzen zion. Perraultek presa zuen eta harro zihoan bere trebetasunak jela gainean azalduaz. Dena behar baitzen han, zeren udazkeneko jela oso mehea baita; leku batzuetan ez baitzen izotzik ere ikusten. Egunak etorri, egunak joan, Buck saiatu zen benetan bidaia ona egiten. Beti, goiz, oso

goiz abiatzen ziren, goiz argitu aurretik. Lehenengo argiak, zenbait mila eginda gero harrapatzen zituen. Iritsi berriz, gaua sartuta gero. Arrain pusketa bat jan eta elurpeko zulotan lo egiten zuten. Buck goseti zegoen. Libra eta erdi izokin zen bere jan-anoa. Eta sekula ez zuen aski. Tripako minak sarri izaten zituen. Beste zakurrak, ordea, ez ziren hain gorputz handikoak, eta nahiko izaten zuten libra batekin.

Ez zen Buck, garai bateko zakur fin eta hezi hura. Polikiegi jaten zuen, eta bere lagunek lehenago bukatzen zuten. Gero, bere anoa puska ere kentzen zioten. Ez zekien zer egin: birekin hasiko zen borrokan, baina, bitartean besteek jaten zioten beste puska. Eta, beste erremediorik ez zitzaion geratu: besteak bezain azkar jaten ikasi. Eta bere gosea gero eta handiagoa zen, eta besteena lapurtzen ere ikasi zuen. Behin, han ikusten du Pike, zakur bat, lotsagabea. Perrault atzera begira zegoela urdaia harrapatzen. Hurrengo egunean, berak gauza bera egin zuen. Baina ez zuen pusketa bat bakarrik harrapatu, baizik eta urdai guztia ostu eta jan zuen. Han sortu zen iskanbila ez zen nolana hikoia izan! Arranopola, urdai guztia falta. Baina, inork ez zuen bera izan zitekeenik usaindu. Bazen zakur bat, Dud, lapur fama zuena. Eta harentzat izan ziren bizkarreko guztiak.

Orduantxe konbentzitu zen Buck, gauza zela Artiko aldeko baldintza txar haietan ere bizitzeko. Egoera berritara egokitzen erraza zen. Ez zegoen beste erremediorik, noski. Baina batzuk ez dute lortzen. Berak, bai, oso ongi lortu zuen. Han gogorra izan behar zen. Ez zuen balio goxo eta atsegina izateak. Nola bizi, ikasi behar zen. Hegoalde oso desberdina ezagutu zuen berak. Han denak lagunak ziren, elkar maite ziren, eta bakoitza zen bere gauzen jabe, eta norberak zituen bere sentimenduak. Baina Artikoko alderdi haietan, horrek guztiak putza balio zuen. Hutsa, eta lege horietan zebilenak ezin zuen aurrera egin.

Barru-barruan, egoera berri harekin oso pozik zegoenik ezin esan dezakegu. Baina, hori bai, moldatu egin behar zen, eta moldatu zen ongi baino hobekiago. Berak ez zuen inorekin borroka egiteko beldurrik. Edozein baino indartsuagoa zen. Baina, txamarra gorrizko gizon haren eskumakilak munduan izan den legerik zaharrena erakutsi zion: indarraren legea. Zibilizazioan zegoenean, agian edozein huskeriagatik bere bizia arriskatu zezakeen. Adibidez, epailea defendatzeagatik; baina, lege berri honek, moralitate kutsuak kendu zizkion. Eta geroztik, bere larruari begiratzen ikasi zuen. Ez zuen lapurtzen lapurtzeagatik. Hori ere ez. Bere sabelak

eskatzen ziolako baizik. Ez zuen ia inoren bistan lapurtzen, baizik eta isilpean eta maltzurki. Hitz batean, han egin behar zena egiten zuen, eta beste erremediorik ez zen geratzen.

Bizkorra izaki eta azkar ikasi zuen. Bere giharrak gogortu ziren ikaragarri, eta gorputzeko mina zer zen ere ahaztu zitzaion. Edozer gauza jaten zuen, gauza zikina nola gauza garbia. Inondik ez zuen horretarako lotsarik eta, gainera, jaten zuen guztiak on egiten zion. Zakur sendo eta indartsua zen hura, beste inor baino gehiago. Bere ikusmena zorroztu zen eta usaimena ere bai. Edozer gauza ikusi, edozer gauza usaindu. Entzumena ere itxuragabe findu zitzaion. Lotan zegoela ere entzuten zituen zaratak eta baita soinu txikienak ere. Eta laster antzeman ere bai, zarata haien esanahia: edota arriskuren bat zekarten edota bakezkoak ziren. Hortzekin karraska kentzen zuen, behatz tartean egiten zitzaion izotza. Egarria zuenean, aurreko hankarekin jela puskatu eta edaten zuen nahi hainbat. Baina gauza guztien gainetik, zerbaitetan egin zen zeharo artista: gau bat lehenago antzematen zion haizearen norabideari. Ez zen axola, zuloan oheratzean haize izpirik ez bazegoen ere. Hurrena etor zitekeen haizeak, nola atseginak, hala zakarrak, hura beti, zuloan ondo egokitua bilatuko zuten.

Esperientziak asko erakutsi zion. Baina, horrez gainera, bere sena ahaztuak, lotan zeudenak, guztiak, denak esnatu ziren. Berehala ahaztu zituen bere aurreko aro zibilizatuak. Esan zitekeen, zakurraren gizaldiz gizaldiko historian atzera jo zuela. Haiek zituzten joera basatiak berriro etorri zitzaizkiola. Haiek taldetan ibiltzen baziren, basoan zehar, eta aurrera zihoazen heinean janaria biltzen bazuten, zakur honi ere, guzti hori gustatzen hasi zitzaioala gero eta gehiago.

Ikasi zuen, laster asko, bultzaka, hoska eta otsoak bezala borroka egiten. Honelaxe borrokatzen ziren bere aurrekoak. Berehala nabaritu zuen gorputz guztian odol berri bat. Barruak beste modu batetara irakiten zion. Odolez zetozkion joera, sen guztiak, hain ahaztuak, denak berriro ere bizkortu zitzaizkion. Eta bereganatu zituen, beti bereak izan balitu bezala. Eta gau argi eta baketsutan, izarrei begira jarri eta otsoak bezala uluka hasten bazen, bere arbaso guztiak gogoratzen zituen. Ez zen bera uluka ari zena, bere aitona-amonak baizik, gizaldiz gizaldi honela ari zirenak.

Hala, zibilizazioko heziketa hura baztertu zuen, ez zitzaion atsegin. Bere aspaldiko kantuak

indar hartu zuen eta honela, Buck berriro, bere onera etorri zen. Beti izan behar zuen nortasunera aldatu zen. Guzti hori, Artikoko gizon urre zale gaizto haiei esker. Eta Manuel lore zaintzaile hark, etxeko emazte eta haurren gosea kentzeko adina irabazten ez zuelako. Eta abar eta abar...

III. ANTZINAKO SENA NAGUSI

Antzinako sen basatiak ziren Buckengan nagusi. Bizimodu latz hartan, hazten eta hazten joan ziren, gainera. Maltzurkerian ikasi zuen eta horrek bere buruarekiko halakoxe ziurtasun eta oreka ematen zion. Egin baino lehen gauzak pentsatu egiten zituen. Spitzen kontra zuen gorroto huri eusten ere izan zuen hamaika lan.

Spitzek ere barruan bazekien, Buck zela bere bidean atera zitzaion etsairik handiena. Eta horregatik egun guztian zirikatzen zuen, borroka bat nahi zuelako. Eta garbi zegoen, borroka hartatik, bien arteko bat hilko zela.

Eta ia hori berbera gertatu zitzaien ibilaldiaren hasieran. La Barge izeneko laku baten ondoan kanpamendua jarri beharra izan zuten. Eguraldi txarra eta elurtsua baitzegoen. Dendak ere aurreko herrian utzi zituzten, pisua arintzeko. Harkaitzezko horma ebaki eta altu baten ondoan gelditu ziren. Piztu zuten, bada, sua. Gero, hura ere itzali zen eta iluntasunean afaldu beharra izan zuten.

Buckek, beti bezala, lo-zuloa egin zuen eta hantxe epel-epel jarri zen. Frantziskok arraina banatu zuenean, hamaika kosta zitzaion goxotasun hartatik mugitzea. Baina janda gero itzuli zenean, lo-zuloa okupatua aurkitu zuen. Nor izan zitekeen eta Spitz zegoen barruan. Alu aiena! Ordura arte barkatu zizkion hamaika gauza, baina hura ezin zuen pasa. Amorrazioz betea kristoren saltoa eman zuen bere kontra. Spitz bera harritua zegoen, ez zuen uste, bada, gauza zenik honela haserretzeko Buck. Buck ere prestatu zen borrokarako. Ez zen makala izango. Baina une horretan gauza harrigarri bat gertatu zitzaien.

Ustekabean, kanpamendua zakur gosetuez bete zen. Gutxienez baziren ehun zakur husky odolekoak. Haiek bai usaindu ondo janarien gozoa. Eta han eraso zuten kanpamendua. Tristura ematen zuen halako zakur hezurtsuak ikusteak. Peraultek ikusi zuen lehenengoa janari kaxa batean muturra sartuta. Han izan ziren iskanbilak. Hartu eskumakila eta saiatu ziren uxatzen. Baina ezin. Hain zeuden gosez beteak zakur alu haiek! Baina, hain zeuden gosetuak, han jarraitu zuten azkenengo apurra jan arte.

Zakurrak ere atera ziren lo-zuloetatik ea zer gertatzen zen ikustera. Hura zen gero! Azaldu ziren bezain laster, haien kontra bota ziren husky gosetuak. Arrokozko hormaraino atzeratu ziren haiek. Buck bera ere hiruren artean eraso zuten, bular guztia odoltzeraino. Nahaste latza sortu zen. Billee, negarrez zegoen. Dave eta Sol-Leks odoletan, baina borroka gogorrean. Joek haserre bizian izugarrizko haginkadak botatzen zituen eskuin ezkerrera. Eta haietako bati hankan eman zion koska gogor bat. Pike, zakur lapurra bere gainera erori zen eta zartada batean lepoa ebaki zion. Buckek heldu zion lepotik husky ihar bati eta lepoko zaina moztu zion. Beste bati eraso zion eta orduan, ustekabean, bere haragitan hagin zorrotz batzuk nabaritu zituen. Spitz bera zen, traizioz erasotzen ziona.

Eraso hura menderatu zutenean, Perrault eta Frantzisko, ordena jartzen hasi ziren. Gelditu ziren janariak jaso, gorde eta abar. Baina zakur amorratu haiek berriro ere etorri ziren. Bertako zakurrak inguratu zituzten. Billeek desesperazio hartan, indar berriak harturik horzkadaka eta haginkadaka ingurune hura hautsi zuen eta ihes egin zuen baso aldera. Laster jarraiki zioten Pike eta Dubek ere. Haien atzetik abiatu nahi izan zuen Buckek ere. Zeharka begiratuaz ikusi zuen nola bere gain botatzen zen Spitz, lurrera botatzeko asmotan. Bazekien behin lurrera eroriaz gero, ez zegoela bizitzerik. Triskatuko zuten denen artean. Baina lortu zuen aldegitia, eta basoan barna besteen atzetik joan zen.

Gero bederatzi zakurrak saiatu ziren basoan lo-leku egoki bat aurkitzen. Ikustekoak zeuden guztiak ere. Denak zeuden zaurituak, batzuek gutxiago baino besteak zauri gogorrekin. Bularra urratuta, besteak belarria txikituta eta abar...

Eguna argitzen hasi zenean, atzera itzuli ziren kanpamendura. Tristeia zegoen, noski. Baina zakurrak, gutxienez, joanak ziren. Ez, noski, izugarrizko pikardiak egin gabe. Janari erdia falta zen. Janari usaia zuen edozer gauza jan zuten, kanpamenduaren zati bat ere bai, Perraulten mokasin zati batzuk ere bai... Frantziskok ikusi zituen zakurrak itzultzen. Haien egoera ikusiaz zera esan zuen:

— Ai gaixo horiek. Ez nintzateke batere harrituko amorrua harrapatuko bazenute, batzuek behintzat. Zer dirudizu, Perrault?

Perraultek ez zion hitzik erantzun. Oraindik 400 kilometro gelditzen ziren Dawsonera iristeko. Amorrua harrapatzen ba zuten, ez zen giro izango. Nola joan harantz?

Bi ordu behar izan zituzten, zakur-tresnak txukuntzen eta konpontzen, Hamaika birao galdu zen lainotan. Gainera zetozen milak zailenak ziren.

Thirty ibaia ez zen jelatu. Uholde bat bezala jaisten zen mendian behera, eta txokotan bazegoen jela pixka bat, baina besterik ez. Hamaika aldiz, Perraulten hankek desegin zuten hankapean jela hura. Eskerrak zeraman makila bati. Zuloa egiten zitzaion bakoitzean, makila hura zeharkatuaz salbatzen zen. Baina uretan bustitzen ziren bakoitzean, sua piztu beharra izaten zuten, izoztuko ez baziren. Leku hotzak ziren haiek, 20 gradu zero azpitik.

Ez zegoen indarrik, ez zailtasunik Perrault jauna geratuko zuenik. Horregatik izan zen Kanadako Gobernuaren posta eramaile aukeratua. Goizetik gauera lan egiten zuen. Lakuaren bazter arriskutsuak pasa zituzten, hankapean jelak kris-kras egiten zuelarik. Halako batean, lera bera ere, ia ur azpiraino sartu zen, Dave eta Buckekin batera. Atera zituzteneko, ia itoak zeuden. Lehortu, eta sua eginaz han epeldu zituzten. Hogeitamar mila egiten sei egun behar izan zituzten.

Beste batean, Spitz ere erori zen, atzetik beste guztiak atoan eramanez. Buckek ordea, hankak tinkatu zituen, Davek ere bai, eta atzetik Frantziskok. Komeriak orduan ere.

Une batetan, elur-leraren atze aurre guztia, jela azpira joan zen. Beste erremediorik ez zegoen. Horma izoztua igo behar zen. Ez zen erraza. Hala ere, Perrault saiatu zen eta baita lortu ere. Azpian zegoen Frantzisko, beldur batean, noiz Perrault amilduko zen goitik behera. Igo zen, igo zuen Frantzisko, gero elur-lera ere bai. Eta zakurrak, bere uhaletatik zintzilika zirela. Jo zuten aurrera, gero berriro jaitsi. Hitz batean, eguna bukatu zen, eta ez zuten mila laurden bat besterik aurreratu.

Hootalinquara iritsi zireneko denak jota zeuden zeharo. Bai Buck, baita beste zakurrak ere. Lehen denbora asko galdua zuten eta Perrault-ek, goizetik gaueraino ibilarazten zituen. Asko aurreratu zuten, eta inguratu ziren Five Fingers izeneko alderdira.

Buck-en hankak ez zeuden gogortuak. Bere lehengo bizitza erraza hartan bigundu zitzaizkion. Eta izorratu samarrak zeuzkan. Gauean, lotarako ordua heltzen zenean, leher eginda ez zen janari bila ere altxatzen. Frantziskok berak jarri behar zion inguruan. Denborarekin Bucken hankak besteenak bezain indartsuak eta gogorrak bihurtu ziren.

Behin, Dolly ur-ertzean zegoen. Dolly zakur mantso bat zen. Baina bat-batean, errabia harrapatu zuen. Bota zuen otso batek bezalako ulua. Eta Bucken atzetik abiatu zen. Honek ez zekien zer zen errabia. Baina beldurturik ihes egin zuen. Atzetik Dolly delakoa, hozka egin nahian. Aurretik Buck, tximista baino bizkorrago, ihesi. Ia bistatik galdu ziren jazarpen gogor hartan. Han nonbait entzun zuen Frantziskori hotsa, itzultzeko deituaz. Eta Buckek hartu zuen buelta eta pasa zen Frantziskoren beso ondotik. Honek aizkora bat zeukan hantxe. Berehala, han pasatzen da Dolly errabiatua ere. Eta danba, aizkorakada batek kendu zion bizia.

Nekatua eta lehertua, lerara inguratu zen Buck. Une haren zain zegoen Spitz. Ez dizkio bada, kolpean bere letaginak bi aldiz saihetsean sartzen. Baina han zegoen Frantzisko bere zigorrarekin. Orduan hartu zuen Spitek bere bizitzako jipoirik handiena. Zer esanik ez, zenbat poztu zen Buck.

— Deabru bat da Spitz hori —esan zuen Perraultek.

— Baina Buckek bi deabruk baino gehiago balio du — erantzun zion besteak. Halako batean haserretuko da, eta Spitz hori txiki-txiki egingo du. Ikusiko duzu.

Geroztik bi zakurren arteko borroka irekia gelditzen zen. Batak besteari noiz erasoko une zain egongo ziren biak. Spitz, ordura arte lider hutsa izan bazen ere, garbi ikusten zuen, Buck zakurrak kendu ziezaiokeela nagusitza hura. Ez zion barkatuko. Harrituta ere bazegoen bai, Spitz. Ordura arte ezagutu zituen hego aldeko zakur guztiak bigunak izan ziren, eta gaur edo bihar hil egiten ziren. Baina Buck ez. Eta gainera, gero eta iaioagoa eta nagusiagoa ikusten zuen. Otso zakurrak adinako indarra. Maltzurkeria eta basakeria ikasi zuen. Ondo aski. Maltzurra zen eta bazekien itxaroten, aspaldiko bere aurrekoen aurreko basati haiek bezala. Gaur edo bihar, norgehiagoka etorriko zen. Irabazten zuenak irabazten zuela, hura izango zen nagusi. Buckek

nahi zuen noski. Hori zihoakion bere izatearekin. Barru barrutik nahi zuen. Harroak izan ohi omen dira zakurrak. Bai norgehiagoketan, baita lan egiterakoan ere. Han lanean hezurak utzi behar badituzte ere, nahiago izaten omen dute, lerari arrastaka doazela ezinean hil, handik kenduak sentitzea baino. Harrokeria horregatik zigortzen zituen Spitzek zakur-lagunak, deskuidatzen zirenean. Harrokeria hori bera sentitzen zuen Buckek.

Beraz, Spitzen nagusitasunak bazuen kontrario galanta Buckengan. Zenbaitetan, norbaitek zerbait gaizki egiten bazuen, eta Spitz zigortzen hasten bazen, bitartekatuko zen Buck. Hori bera gertatu zen behin, goiz batetan Pike zakur lapurra azaldu ez zelako. Frantzisko atzetik joan zitzaion. Baina hura ezkutuan zegoen, elurpean, egun hartan ez baitzuen lana egiteko gogorik. Spitz, nola ez, haserre bizian zegoen. Emango zion jipoia azaltzen zen bezain azkar. Haren marruak entzun zituen Pikek eta beldur zen ateratzeko.

Atera zen bezain azkar, gainera jaurti zen Spitz. Baina, su berdinarekin tartean jarri zen Buck, ukitu ez zezala adieraziaz. Spitzek jo zuen pauso bat atzera eta lurrera erori zen. Berehala zuen gainean Buck, eta txikituko zuen, baina han zegoen Frantzisko bere zigorrarekin, justizia jartzen. Eta eman zion zigorkada sail bat Bucki.

Dawson inguruan zen. Eta egunetik egunera Spitz eta Bucken arteko gorabeherak ugarituz joan ziren. Zer gero, norbaitek zerbait gaizki egiten bazuen, Spitz zen beti justizia ipini behar zuena. Nagusia. Buckek, maltzurki gainera, ez zuen hori onartzen. Batik bat, Frantzisko ez zegoenean jartzen zen era horretan. Ez zuen bizkarrekorik hartu nahi. Bucken jarrerak matxinada orokorra ekarri zuen zakur-talde hartara. Gauzak ez zihoazen ongi. Desobedientziak gero eta handiagoak ziren. Berandutzeak ere bai. Frantziskok bazuen nahiko lan. Beti beldurrez zegoen, noiz zaunka bat entzungo begiratzeko ea Spitz eta Buck ziren borrokan ari zirenak.

Baina iritsi ziren Dawson aldera, horrelakorik gertatu gabe. Han zakur denek lan egiten zuten. Egurra garraiatuaz alde batetik bestera, zintzoki. Gero gauean, bederatzietan, hamabietan eta berriro hiruretan, uluka egiten zuten asaba zaharrek bezala. Bucki ere asko gustatzen zitzaion. Zazpi egun pasa zituzten Dawsonen. Han utzi zituen Perrautek hamaika eta hamaika posta. Baina, ezin zuen han gehiago geratu. Presazko gutun asko zuen eramateko. Eta abiatu beharra zuen Dyea eta Salt Water aldera. Bidaia azkar egin nahi zuen, sekula baino azkarrago. Harroa

zen, eta gainera, oraingo honetan bazituen arrazoiak hori egin ahal izateko. Hain zuzen, zakurrak deskantsatuak zeuden, eta irekia zegoen bidea nahiko trinkoa eta zuzena zen, zeren geroztik jende asko pasa baitzen handik. Gainera, poliziak, jarri berriak zituen, janari biltegiak, bideko jendea pisu gutxiagorekin ibil zedin.

Iritsi ziren bada, Sixty Miles izeneko alderdira lehenengo egunean. Bigarreanean Yukon pasa zuten. Egun onak ziren, baina zakurren artean nahiko gorabeherak izan ziren.

Lehen esan dugunez, Buckek ez zuen onartzen Spitzen nagusitasuna. Horrek zakur-taldearen hausketa ekarri zuen. Ez zuten lehen bezala leratik tiratzen. Buck horren jarrera ikusita besteak ere harrotu egin ziren, eta ez zuten onartzen Spitzen jauntxokeria. Ez zuten ia haren beldurrik. Behin Pikek janaria lapurtu zion. Hurrengoan Dub eta Joe borrokan ibili ziren bere kontra. Buck bera ere ez zen Spitzen ondoan pasatzen hortzak erakutsi gabe.

Hango diziplina pikutara joan zen. Frantzisko bera ere ernegatua zebilen. Ezin zuen zakur haiekin. Garai bateko obedientzia galdua zegoen. Eta Frantziskok bazekien erruduna Buck zela. Eta Buck berak ere bazekien, Frantziskok hori bazekiela. Baina maltzur jokatzeko zuen, ez zuen bizkarrekorik hartu nahi. Lana egin bai, egiten zuen, hori zuen bere pozik handiena. Baina, poza gehiago ematen zion, zakurren artean borrokaldi bat jartzeak edo Spitz zirikatzeak.

Ilunabar batez, Tahkeena deritzan aldean, untxi bat azaldu zen. Dub txakurrak ikusi zuen lehenengo. Eta bere atzetik abiatu zen jazarpen bizian. Inguru hartan ba zen Polizien postu bat, 50 zakur husky berekin zituena. Haiek, ikusi zuten korrika saio hura, eta atzetik abiatu ziren. Lera-zakur guztiak ere atzetik zituen. Untxia ez zen hankamotza. Lehengo ibai bati jarraiki zitzaion. Gero errekatxo bati. Tximista bezala zihoan hura elurraren gainean. Txakurrak, nahiko lanak bazituzten aurrera joaten. Buck zihoan zakur-taldearen aurretik. Baina ez zuen nahi zuena lortzen. Handik eta hemendik ingurune handiak eginik. Alferrik ordea.

Buckek untxia harrapatu nahi zuen, hil nahi zuen. Bera basatia zen. Sen basatiak zituen. Haragia nahi zuen, odola, odol beroa frogatu.

Esango litzateke Buck estasi batetan bezala zihoala, bere aurreko arraza guztiak gogoratuaz.

Pozik, noiz untxia harrapatuko. Noiz ehiza hura egingo.

Bitartean, ordea, Spitz, maltzurragoa izanik, zakur-taldetik atera zen. Eta errekatxoa okertzen zuen lur gune batetik joan zen. Buckek, noski, ez zuen alderdi hura ezagutzen. Eta untxi mamu hura harrapatzeko ingurunea eman zuenean, erreka gainetik nondik ikusten duen, mamu bat ateratzen untxiarenaren bidera. Spitz zen. Untxiak ezin zuen atzera egin eta hortz zuri tartean hilda erori zen.

Buckek ez zuen ezertxo ere esan. Ez zen gelditu, eta Spitzzen gainera jaurti zen odol bizian. Baina horzkadak hutsegin zion. Behin eta berriro irauli ziren elur hautsetan. Spitz ordea, laster altxa zen. Bazirudien ez zuela oreka ere galdu. Jo zuen atzera kolpea eta bularretan harrapatu zuen Buck. Birritan bere hortz altzairuzkoak hertsi ziren Bucken haragi bizitan. Bien bitartean, posizio berria eta hobe bilatzen zuen, erasotzeko.

Buckek ulertu zuen. Iritsi zen ordua. Borroka hura heriotzarekin bukatuko zen. Edo berea edo bestearena. Lehen, jira biraka untxiaren atzetik ibili ziren bitartean, hutsa, hura jolasa iruditu zitzaion, jolas ezaguna. Baina orain, gauza desberdina zen. Dena isilik zegoen. Haize leunik ere ez zen nabaritzen. Husky zakur talde guztia atzetik zegoen. Haien arnas estua besterik ez zen entzuten. Dagoeneko jan zuten untxia. Eta han zeuden zain, borroka hiltzaile haren zain. Begiak bizi, isil-isilik. Bucki egoera hura beti bizi izan balu bezalakoa iruditu zitzaion.

Spitz etsai bizkorra zen. Bere bizian zehar, zakur askorekin borrokatutakoa. Behin ere galdu gabekoa. Oraingo honetan galdu behar ote zuen, bada? Ez zuen kolperik emango hark, horretarako prest ez bazegoen.

Alfer alferrik saiatu zen Buck, zakur zuri handi haren lepoan bere hortzak sartzen. Hori egin nahi izan zuen bakoitzean, bere letaginak, Spitzzen letaginekin txoke egin zuten. Letaginka ari zela, mutur guztia odoldu zitzaion. Baina ezin izan zuen lortu bere gogoa. Orduan, zituen indarrak batu eta eraso zaparradatan atzeratu zuen. Lepoa nahi zuen harrapatu. Baina alfer-alferrik. Spitzzen eztarria harrapatu nahi zuen. Baina, honek, burua atzera botatzen zuen. Ezin lortu. Buruarekin bultzatzen zion eror zedin. Ezta ere. Eta bakoitzean zauri berri bat irabazten zuen.

Spitz ordea, oraindik zauri bat ere gabe zegoen; Buck, berriz, odoletan, eta dagoeneko arnasestuka hasita. Borroka desesperatua zirudien hark. Bitartean, han zeuden otso zakurrak, begira eta begira, nor eroriko, gero hura segituan jateko.

Ikusi zuen Spitzek, beste zakurra nahiko larri zela. Eta orduan erasotzea erabaki zuen. Nahiko lanak bazituen Buckek zutik egoten ere. Une batean, Buck erori ere erori egin zen. Eta atzeko hanketan eserita zeuden 50 otso zakurrak altxatzen ere hasi ziren. Baina berriro, kolpean altxa zen, eta otso zakurrak eseri ziren.

Buckek bazuen bere barruan gauza bat orain erabili behar zuena: irudimena. Eta erabili zuen. Ordura arte, grinaz egin zuen borroka. Hemendik aurrera, buruz egin behar zuen. Eta horrela, eraso zion beti bezala Spitz zakurrari, baina azkenengo unean makurtu zen elurretan. Eta bere hortzak tinkatu ziren Spitzen aurreko hankan. Hezur karraska entzun zen. Baina zakurrak hiru hankekin kontra egin zion. Hiru aldiz lurrera bota nahi izan zuen. Alferrik, ordea. Berriro, lehengo itxura egin zion, eta beste aurreko hanka desegin zion letaginen tartean. Ezinean ikusi arren, Spitzek gogor eutsi zion. Hasi zen ikusten, nola inguruko begi odolezko otso zakurrak bere inguruan borobiltzen hasiak ziren. Nola mingain egonezin haiek milizkatzen zituzten ezpain eta hortzak. Askotan ikusi ahal izan zuen hori, baina beti besteak ziren galtzaile. Oraingoan, agian, bera zen galtzailea.

Ez zegoen beretzako itxaropenik. Buck errugabea izan zen. Ahaztuta zituen garai bateko bigunkeriak. Eta prestatu zen azkeneko erasoaldirako. Otso zakurrak gainean zituzten. Arnas babatsua hantxe entzuten zen. Spitzen atzean zeuden, atzean eta bi aldamenetan. Hari begira. Geldirik, harrizko bezala. Spitz bakarra zen beldurrez eta ileak dardaraz zituena. Ez zuen hil nahi, eta heriotza uxatu nahi zuen. Bat-batean, Buckek salto berezi bat egin zuen: aurrera eta atzera: aurrera salto egin zuenean, bere lepoak txoke bizi egin zuen etsaiaren lepoan eta atzerakoan bere lekura itzuli zen. Une berean, otso zakurrak puntu txiki bat bezala biribildu ziren elurraren gainean. Ez zen Spitzen arrastorik ere ageri.

Pozik, harro, hiltzaile asea, alde batera baztertu zen, gertakari hura pozik eta atseginez ikusten zuelarik.

IV. AGINDU NAHI

— Esan nizun nik — zioen Frantziskok, Buckek bi deabruk haina balio duela. Laster ikusi baitzuen Spitz falta zela eta Buck zauriz betea zetorrela.

— Spitzek deabru batek bezala egiten du borroka — erantzun zion Perraultek, haren zauriak aztertzen zituelarik.

— Eta Buckek bi deabruk bezala, — erantzun zion lagunak. Hemendik aurrera bakea izango dugu. Ikusiko duzu hala dela. Spitz ez da gehiago agertuko.

Perraultek tresnak prestatzen zituen bitartean, Frantziskok txakurrak prestatzen zituen. Buck, Spitzen lekuan jarri zen, inork ezer esan gabe. Baina Frantziskok uste zuen hobe zela han Sol-Leks jartzea. Eta bestea baztertu zuen.

Ez alferrik, Buckek bultzada bat eman zion Sol-leksi, eta kendu zuen handik.

— Ikusi al duzue hori? — esaten zuen Frantziskok. Spitz akabatu du eta orain bere lekua hartu nahi du Buckek. Ale, alde hortik.

Ez zion ordea Buckek kasurik egin. Orduan Frantziskok heldu lepotik eta bazterreratu zuen, Sol-Leks ipiniaz. Hau ez zegoen pozik gorabehera haiekin. Beldurra baitzion Bucki. Baina Frantzisko handik joan zenerako, berriro Buckek kendu zuen lekutik bestea.

Frantzisko haserretu zen:

— Orain ikusiko duk — esan zion, esku-makila hartuaz.

Buck zamarra gorriko gizon hartaz oroitu zen. Ez zen gehiago lehiatu hori egiten, baina han gelditu zen alaka tristeak eta amorrazioz beteta. Badaezpada ere eskumakilatik urruti.

Frantziskok bere lanean segitu zuen. Bucken txanda iritsi zenean, deitu zion, betiko lekura etor zedin. Ez zion kasurik egin Buckek. Atzera eman zituen hiru pauso. Orduan, ulertu zuen Frantziskok, eskumakilaren beldur zela. Hura utzi zuen, baina hala ere zakurrak ez zion kasurik egin. Ez zen bere lekura joan. Hark agintea nahi zuen. Bestela ez konta harekin. Berea zen leraren agintea.

Geroztik han ibili ziren bi gizonak, Bucken atzetik, hura harrapatu nahian, biraoka, eskumakilarekin kolpea hemen eta kolpea hor joaz. Baina alferrik. Ez zuten harrapatzen. Honelaxe pasa zuten ordubete. Zakurrak garbi adierazten zuen, zer nahi zuen: bere aginte gogoan betetzen zenean, orduan, eta ez lehenago, itzuliko zen.

Azkenean eseri zen Frantzisko bere ileak leunduaz. Alferrik. Garaituak zeuden. Begiratu zion Perraulti. Hau desesperatua baitzegoen. Duela ordubete abiatu behar baitziren.

Sol-Leks zegoen lekura joan zen. Eta askatuaz bere lekura eraman zuen. Begi erne zegoen Buck. Bai pozik ere hura ikustean! Frantziskok berriro deitu zion.

— Utzi ezazu alde batera eskumakila, esan zion Perraultek. Eta hala, saltoka eta pozik etorri zen Buck, taldearen buru lekuraino. Lotu zuten, beti bezala, eta elur-lera (trineoa) abiatu zen, ikaragarritzko abiaduran.

Beti esaten zuen Frantziskok, Buck hura, bi deabru batera bezala zela, baina ez zuen uste hainbesteko trebea zenik, burutsua, eta azkarra. Spitz bera baino hobea, askoz hobea.

Legeak betetzearen, oraindik ere hobea zen. Dave eta Sol-leks-i ez zitzairen axola buruzagi aldaketa hura. Haiek bakean utzi, eta hor konpon. Lana egin bai, hori bai. Baina, lehendik beste zakur gehienak, gaiztotuak zebiltzan Spitzen garaian. Baina Buck, nagusitu zenean, denei hortzak erakutsi zizkien. Harritu ziren, baina bai obeditu ere.

Pike, alfer xamarra izan zen beti, eta ez zuen sekula behar baino gehiagoko ahaleginik egin. Buckek eman zion astindu ederra. Gaua iritsi zenerako hura ere langile bihurtua zegoen. Joek

ere hartu zuen bere zigorra. Spitzek ez zuen sekula ukitu ahal izan. Bai Buckek.

Berehala, guztiak onbidera itzuli ziren. Eta guztiak zakur bat bakarra balira bezala tiratzen zuten.

Aurreraxeago, Rink-Rapids aldean, beste bi husky, sartu ziren taldean. Laster menderatu zituen Buckek bi haiek ere. Hala esaten zuen Frantziskok:

— Ez dut behin ere honelako zakurrik ezagutu. Mila dolar balio ditu.

Perrault ere ados zegoen. Lehen berandu abiatu baziren, orain lehen egin gabekoak eta gehiago ibiliak zituzten. Pozik, beraz. Bidea ere ezin hobe zegoen. Trinkoa. Hotz gehiegirik ez. 30 gradu zero azpitik. Bi gizonak, lera txandatzten ziren. Orain bat, gero bestea. Itzultzeko bidea, lehen joan zireneko ber-bera, askoz azkarrago egin zuten. Lehen jelarik ez zegoen lekutan, orain jela trinkoa zegoen. Eguneko, batz bestea, 40 mila aurreratu zuten. Eta azkeneko gauean, jaitsi ziren itsas aldera, White Pass aldera. Urrutitik ere ikusten ziren itsasontzien argiak piztuta, Skagvay izeneko lekuan.

Bidaiarik bizkorrena izan zen hura. Hamalau egunetan, eguneko 40 mila korritu zituzten. Hiru egun, nagusi bezala ibili ziren han Frantzisko eta Perrault, nork edatera, nork jatera inbitatzen zituztelarik. Denak harrিতa zeuzkaten bidaiaren azkartasunagatik. Gero, zirudenez, agindu berriak eman zituen Gobernuak. Frantziskok besarkada negarti bat eman zion Bucki. Eta geroztik ez zituzten gehiago elkar ikusi, ez Perrault, ez Frantzisko ere. Lehen bezala, haiek ere alde egin zuten Bucken bizitzatik.

Eskoziako erdi beltz batek hartu zuen leraren kargua. Beste hamabi talderekin, hartu zuten berriro Dawsoneko bidea. Posta eramaile eta ekarle. Urre bilatzaileak albiste berriak nahi zituzten. Eta haiek horretan ziharduten.

Barru barrutik, Bucki lan hori aspergarria iruditzen zitzaion. Baina, etsi-etsian egiten zuen. Beste guztiak ere bai. Egun guztiak berdina ziren. Goizetan sukaldariak jaikitzen ziren janaria prestatzera; sua piztu eta gosaltzen zuten. Besteak dendak jaso, hurrengoak txakurrak uztartu,

hareagokoak egurrak moztu, eta abar... Txakurrei ere eman behar zitzairen beren arrain jana. Orduan izaten zuten eguneko ordurik onena. Harantz eta honantz, ibiltzen ziren ehun zakurrak. Batzuk borrokalaria. Hirurekin edo izan zituen Buckek bere gorabeherak. Geroztik guztien gainera bera zen.

Baina, gehien-gehiena, supazterrean etzatea gustatzen zitzaion. Hantxe begiak zituela, begira inora gabe, ametsetan. Batzuetan, kontu zaharrak bururatzen zitzaion. Garai bateko Miller epailearen etxea, han urruti Santa Klara aldean, hango lagunak. Baina gehiago gogoratzen zituen beste gauzak: zamarra gorrizko gizona eta bere makila, Curly zakurraren heriotza, Spitzekin izan zuen borroka, jaten edo jan nahi lituzkeen janariak. Zer ez? Baina, guztien gainera, bere benetako zakur odola gogoratzen zuen. Bere aurrekoen senak, berriro ere gogoratuak, denak berriro hantxe zituen barruan martxan. Bere lehengo bizimodu biguna urruti zegoen. Ez zuen haren inbidiarik.

Batzuetan, han zegoelarik, eta bere begiak sukarretan tinko zituelarik, iruditzen zitzaion, bestelako gizon batzuk ikusten zituela. Gizon haiek, ez ziren orain bezalakoak. Hanka motzagoak zituzten. Besoak luzeagoak. Jantzi gutxi zuten gorputzean, ia larru bizirik ibili ohi ziren. Gorputz guztia iletsua, eta ez ziren oraingoak bezala, zutik egoten. Hanka gainera aurrera, eroriak ibili ohi ziren, lau hanketan ere izan gabe. Haien gorputzean, basatien arintasuna eta fintasuna nabaritzen zuen.

Bestetan gizon iletsu hark hatzapar tartean burua zuelarik lo egiten zuen. Eta areago, pixka bat areago, argi biziak nabaritzen zituen, tximista zorrotzak bezain zorrotzak. Eta beti binaka. Basoko abere basatiak. Gizon hura, gauaren eta ilunaren beldur zela zirudien. Ze askotan aztarrikatzen baitzuen ingurua. Guzti horrek ileak tente jartzen zizkion. Berak ere ulua tristea egiten zuen. Sukaldariak esaten zion arte:

— Hala, Buck, jaiki eta goazen. Orduan beste mundu hori ahitzen zen, eta bere lanlekura joaten zen.

Bidaia gogorra izan zen. Pisu gehiegi zeramaten. Dawson aldera ailegatu zireneko, zakurrak, benetan nekatuak eta ahulduak zeuden. Han, deskantsuan indarberritzen egoteko ordez, bi

egun pasa bezain azkar, Yukon aldeko aldapa jaitsi zuten. Benetan, zakurrek ezin zuten gehiago. Horrez gainera, ez zuen egun onik egiten. Elurra goitik behera, beraz bideak bigunak eta zakurrentzat lan gehiago.

Hala ere gizonak, saiatzen ziren zakurrak ondo zaintzen. Ez ziren lotara joango zakur haien hankak ondo aztertu gabe. Eta ez zuten afalduko, zakur guztiek egin arte. Negua hasiz gero, 1.800 milia ibiliak zituzten. Edozein zakur indartsuenaren indarrak bukatzeko

nahiko eta gehiegi. Buck bera ere ahulduta zegoen. Baina saiatzen zen zakur taldearen barnean diziiplina mantentzen.

Baina okerrena zebilen txakurra, Dave zen. Gauean iristen zenetik goizerarte, ez zen altxa ere egiten. Oso erretxina zebilen. Bidean zihozela ere, sarritan kexatzen zen, zerbaiten eta nonbaiten ezina edo mina izango balu bezala.

Gidari guztiak kezkatuak zeuzkan, zer ote zuen. Besterik ez zuten esaten jaten ari ziren bitartean. Behin ekarri zuten Dave sutondora, eta begiratu zuten ondo, handik eta hemendik estutuaz, zenbaitetan min eman arte. Baina ez zioten hezur hautsi edo horrelakorik aurkitu eta ez zuten asmatu haren gaitzaren berri.

Bere ahultasuna hainbestekoa baitzen, Cassiar Bar aldean hiruzpalau aldiz erori ere egin zen, halaka suminak botaz. Eskoziar erdi beltzak, pentsatu zuen hobe zela leratik askatu eta lanik gabe uztea, deskantsa zezan. Haren ordeaz, Sol-Leks jarri zuen. Baina hura izan zuen mina Davek. Ez zuen intziri besterik egiten. Eta are eta gehiago Sol-Leks, bere betiko lekuan ikusi zuenean. Heriotza minez egon eta hala eta guztiz ere, ez zuen nahi lerarik askatzerik. Ezin zuen etsi.

Lerak aurrera jo zuenean, Dave ere balantzaka abiatu zen ondotik. Ez ordea pozik. Joan zitekeen bazter onenetik. Baina Sol-Leks zegoen lekura joan eta koskaka handik kendu nahi zuen. Kendu nahi eta haren lekuan jarri nahi. Bitartean intziri lastimagarriak botatzen zituen. Eskoziar erdi beltzak, zigorraren bidez handik urrutiratu nahi zuen. Baina alferrik. Ez zuen lortzen. Eta ez zuen gehiago zigortu ere. Azkenean erori zen, eta hantxe erori lekuan tinkatu

zen, inguruan lera luzea ziztu batean pasatzen zitzaion bitartean.

Ahal zuen moduan altxa zen, eta jo zuen aurrera. Geroxeago, gizon batek bere lagunari sua eskatu nahi ziola eta aitzakia horrekin lera ere gelditu zen. Dave ere hantxe zetorren nolabait. Gizonak pipa piztu zuenean, ekin zioten bideari. Zakurrak martxa bizian jarri ziren, azkarregi. Zeren lera ez baitzen mugitu. Zer gertatu ote zen? Sol-Leksen uhala hozkaka moztua zegoen. Davek moztu zuen, eta berriro ere berari zegokion lekuan jarrita zegoen. Gauza harrigarria. Gizonak ere gertakaria komentatu zuten. Zakur bat gaixo egon arren, azkenekoa omen da bere lanlekutik baztertzea. Zakurrak nahiago omen du bere lanean hil, nahiz lan hori halakoxea izan, bazterrean tirotik urruti gelditu baino. Hala bada, Dave, hain gaizki eta gaixo egon arren, jarri zuten bere lekuan. Denak zekiten hiltzera zihoala. Baina, berak hala nahita, hil zedila gustura pentsatu zuten bidaiako zuzentzaileek. Zenbaitetan, erori ere egin zen. Altxa eta jarraitzen zuen. Behin, ordea, lera gaintetik pasa zitzaion, eta geroztik zeharo herrena gelditu zen. Noizbehinka alaka sumingarriak alde egiten zion. Disimulatu, eta aurrera. Iritsi ziren, eta kanpamendua jarri ere bai. Hurrengo goizean ia ibiltzeko ere ez zen gauza. Aurreratu nahi zuen bere lekuraino. Ezin ordea. Aurreko hankek ezin eraman zuten gorputza. Arrastaka eta erori ez erori han gelditu zen. Kanpamendua altxa eta lera abiatu zen, beste guztiekin. Dave bakar bakarrik gelditu zen, ulua urragarrien artean. Bistatik galdu zutenean, eskoziar erdi beltzak, geldiarazi zuen konboia. Ustekabean jaitsi zen, eta lehen kanpamentua egondako lekura itzuli zen, bakarrik. Denak isilik gelditu ziren. Handik pixka batera, pistola tiro soinua entzun zen. Eskoziarra itzuli zen konboira. Igo eta berriro ere zintzarriak alaitu zuten bidaia. Zer gertatu ote zen? Inork ezer esan ez arren, guztiek zekiten gertatutakoaren berri. Zakurrek ere bai.

V. BIDEKO LAN GOGORRA

Hogeita hamar egun pasa zituzten Dawson aldetik Skagwayeraino iristen. Han zetorren Salt Water alderdiko posta. Eta Buck eta beste zakurrak. Guztien egoera lastimagarria zen. Buck oso ahuldua eta galdua zegoen. Beste zakurrak ere zeharo jota zeuden. Buck bera baino okerrago oraindik.

Denak hanketan oso zaurituak zeuden. Lehengo arintasun haiek bukatu ziren. Ez zuten gauza ikaragarriarik. Nekea latza, besterik ez. Bost hilabetetan bi mila eta zortziehun mila egin zituzten, ia gelditu gabe. Okerrenak azkeneko mila eta zortziehunak izan ziren. Ez zuten bost egun baino gehiagoko deskantsurik eduki. Skagway aldera iristean porrot eginak zeuden. Ez ziren gauza ia uhalak ere tente edukitzeko. Aldapa zetorreanean kontu handia behar zuten leratik urruti mantentzeko.

— Bizkor, zakurrak! — esaten zien gidariak. Laster iritsiko gara eta gero deskantsu ona izango duzue.

Gizonek ere uste zuten deskantsu hura izango zutela. Baina gauzak ez ziren hain errazak izango. Hainbeste baitziren Klondike alderdira etorritako gizonak. Eta hainbeste ere haiekin etorri ez ziren emazte, andregai, eta etxeko. Beraz, posta pilatzen zen, itxurarik gabe. Eta osta azkar eramane behar zen. Ez zegoen atsedeen hartzerik. Gobernuak berak ere aginduak emanak zituen. Zakur berriak erosteko. Balio ez zutenak baztertzeke. Zakurrek ez dute asko balio dolarrekin alderatzen baditugu.

Hiru egun pasa ziren. Egun haietan, konturatu ziren, ondo asko, noraino nekatuak zeuden. Laugarren egunean, Ipar Ameriketako bi gizon etorri ziren, eta diru pizar baten truke erosi zituzten zakur, lera eta guzti. Bi gizon haiek Hal eta Txarles ziren. Txarles, erdi gaztea zen, azal zurikoa, begirapen ahul eta bibote trinkokoa, puntak gora begira zituela. Hal hemeretzi bat urteko gazte bat, bere gerrikoan baso laban eta errebolber handi bat zeraman: itxuragatik, zeharo sentimendurik gabea zirudien. Argi eta garbi ikusten zen, bi gizonek, bere girotik oso urruti ibili zebiltzala. Baina, zertara joan ziren harantz? Misterio hutsa zen hori.

Buck erne zegoen eta entzun zituen, salerosketarako tirabira guztiak. Azkenik, gobernuko mandatariak hartu zuen diru pixka bat, eta Buck konturatu zen berriro ere nagusiz aldatzera zihoazela.

Joan ziren, bada, kanpamentu berrira. Dena hutsune batean zegoen. Eta zikinkeria barra-barra: denda ere erdi jaso, erdi erorita, platerak garbitu gabe. Han bazegoen neska bat: Mercedes deitzen zioten. Txarlesen emaztea zen eta Halen arreba.

Buck begira egon zen denda kendu eta biltzen zuten bitartean. Hura zen nahasmendua! Berari zegokion baino hiru aldiz handiagoko bultoa atera zitzaien. Platerak garbitu gabe gorde zituzten. Mercedes bedeinkatu hura ere ez zen isilik egoten diren horietakoa. Alde batera agindua, bestera errieta. Arropa pila bat aurrean jarri zuten gizonak. Berak, han gaizki zegoela eta atzera pasarazi zien. Jarri zuten, bada. Gero, arropa tartean zerbait sartzea ahaztu zitzaiola, eta berriro ere, hura askatu, sartu, berriro lotu, atzean ipini, han ez zegoen gauza onik.

Inguruko dendako hiru gizon inguratu ziren, hango saltsa nahas-mahasa ikustera. Hala esan zien:

— Arraio, arraio, pisu polita daramazue. Ni ez naiz nor esateko, baina, nik, behintzat, ez nuke denda eramango.

— Denda ez eraman? — esaten du Mercedesek. Zaudete isilik. Nola molda ninteke dendarik gabe?

— Udaberria dator, neska, hemendik aurrera ez dago hotzik.

Baina Mercedesek burua mugitu zuen. Eta, nola ez, denda eta beste jarri zuten gainean. — Mugituko al da guzti hori? — galdetu zuen irribarretsu hiru haietako batek.

— Zergatik ez? — erantzun zien Txarlesek.

— Barkatu, barkatu. Izan ere, pisu gehiegi iruditu zait eta — esan zuen eztenkadaz.

Txarlesek bizkarra eman zion, uhalak ahal zuen ondoen jarri zituen. Hitz batean: nahiko gaizki.

— Eta, zakur hauek eramango ote dute tramankulu guzti hori egunaren buruan? — esaten du batek irribarretsu.

— Noski, baietz — erantzun zien Halek. Eta erein zuen zigorra: — Arre! Arre! — esaten zuelarik. Zakurrek eeeup! egin zuten. Alferrik, ordea. Ez zen milimetro bat ere hura mugitu.

— Animalia alu horiek — esaten du Halek. Nik erakutsiko dizuet.

Eta erein zuen gogorki zigorra.

— Oso ahulduak daude animalia horiek — esaten die auzoko gizon batek. Ez dute besterik, deskantsua behar dute. Besterik ez.

— Joan dadila pikutara deskantsua — izan zen hartu zuen erantzuna.

Mercedes ere harritua zegoen, eta esaten dio anaiari:

— Ez iezaiezu kasurik egin. Zu zara gidaria, ez da? Ale bada, segi aurrera.

Berriro ere haizea urratu zuen Halen zigorrak. Eta astindu zituen zakurren bizkarrak. Ez alferrik. Lera hura, aingura bat bezala tinkatua zegoen. Beste bi edo hiru ekitaldi egin zituzten. Dagoeneko zakurrak arnasestuka hasi ziren. Eta gainerik Halen zigorra.

Mercedes intzirika inguratu zitzaion: — Arren, Hal, ez itzazu era honetara zakurrak zigortu. Arren eta arren!

Buckek ez zion batere sinpatiarik Mercedesi, baina ongi hartu zuen haren aholkua.

Begira zeudenen arteko batek, ezin izan zuen isilik egon eta esaten die:

— Ez da nire gauza, baina, lera elurrari itsatsia dago. Askatzeko, bultza iezaiozue eskuin eta ezkerrera. Orduan, bai, askatu eta abiatu zintezkete.

Hirugarren ahalegin honetan, eta gizon hark aholkatu zien bezala eginaz, abiatu ziren nolabait, zambuluka eta Buck eta beste zakurren bizkarrek zigor zorrotza dinbi-danba zutela. Handik ehun metrotara bazegoen bide buelta bat. Hura hartzeko, gidari iaioa izan behar zen. Hal, ordea, ez zen ez gidari iaioa ez ezer. Hura hartzean, lera guztia ipurdiz gora joan zen. Zakurrak ez ziren gelditu. Txispak botatzen zituzten haserrearen haserrez. Halek deiadar egin zien, sooo esanaz. Baina, ezta kasurik ere. Erori ere egin zen, eta lera gainetik pasa zitzaion. Skagway guztia tripak lehertzeko zorian jarri zen ikuskizun merke hura begiratuaz.

Baziren batzuek barregurari eutsiaz, zakurrak gerarazi zituztenak. Eta berak, honela esan zien:

— Dawsonera iritsi nahi baduzue, kargaren erdia kendu beharko duzue, eta txakurrak doble jarri.

Nonbait, orduan, kasu eginik, hasi ziren gauza batzuk kentzen. Latak ere bai, tartean. Algara bizia egin zuen jendeak, ze Artikoan latak eramatea izugarritzko kimera bat besterik ez baita. Txantxaz betetako komentarioak ere ez ziren faltatu:

— Arraio... Hotel batek izaten al du manta gehiago ta...

— Ze etorri zarete hona, platera eta guzti? Ba al dakizue non zaudeten... eta...

— Arropa guzti hori, zertarako? erdia baino gutxiagorekin ere molda zintezkete.

Hala bada, tartean Mercedesen negar zotinak ere zirelarik, aukera bat egin beharra zegoen. Arropen erdiak, kalera. Mercedesenak eta besteenak, denenak. Popatik hartzera.

Erdira jaitsi zuten pisua, hala ere ikaragarritzko tramankulua zen hura. Arratsaldean, Txarles eta Hal beste sei zakur eroatera joan ziren. Erosi ere bai. Baina ez planta onekoak. Gero beste bi

gehiago ere erosi zituzten, Teek eta Koono izenekoak, eskimal odolekoak. Denetara, hamalau. Etorri berriek bazirudien ezertxo ere ez zekitela. Hoztasun batekin sartu ziren taldean, ze Buck berak ere erakutsi nahi izan zien zer ez eta zer bai egin behar zuten. Ezezkoa ikasi zuten, nonbait. Zer egin behar zuten ez, ordea. Ez ziren lanerako eginak. Bi eskimalak kenduaz gero, ez zuten ahuntzaren gauerdiko eztula balio. Han ez zegoen zer aprobetxaturik.

Beraz alde batetik, lehengo zakur nekatuak, ahulduak, eta bestetik ekarritako zakur hezurtsuak eta putz eginak, ez zirudien ibilaldiaren etorkizuna oso alai izan behar zuenik. Bi gizonak, boligrafoa eta paperarekin, erraz egin zituzten numeroak. Hainbeste zakur, hainbeste eguneko, hainbeste kilometro... Eta Mercedes tuntuak, bi gizonen bizkar gainetik, baiezka.

Hurrengo goizean, berandu, nola ez, abiatu ziren kalean gora. Baina martxa hark ez zuen ez sasoirik, ez bizitasunik. Hasi baino lehen, nekatuak zeuden, lehertuak. Buckek bolada hartan, lau aldiz egina zuen Salt Water eta Dawson arteko bidaia. Bazekien bide haren zailtasunaren berri. Orain baldintza haietan abiatzeak ematen zion pena. Ez zuen lana gustura egiten, ez besteek ere.

Buck konturatu zen, bi gizon eta andre haien mende egoteak, ez zuela zentzurik. Ez zekiten ezer egiten. Eta, zirudienez, ez ziren gauza ikasteko ere. Gau erdia kanpamentua jartzen pasatzen zuten, eta beste gauerdia biltzen. Ez zuten ez bururik ez abururik. Jasotzen zutena, bidean erortzen zen, ze denbora gehiago behar zuten gero, erortzen zen bakoitzean altxatzen. Hamar milatik gora ezin egin zuten eguneko. Bi gizon bizkorrek kalkulatu zutenaren erdia baino gutxiago.

Gauza ikusia zen: laster ez zen janaririk izango, denak agortuko ziren. Horretaz gainera, zakur atzerritarrak, hainbeste denboran jan gabe egon ondoren, izugarritzko apetituarekin irensten zituzten emandako guztiak. Beste aldetik, eskimal zakurrek ere indar gutxirekin tiratzen zutenaz gero, Halek erabaki zuen, janari doblea ematea. Baina oraindik Mercedesi hura nahikoa zenik ez zitzaion iruditzen. Eta isilka-misilka, berak oraindik ere gehiago eman zien. Baina haiek behar zutena ez zen hainbesteko janari pila, haiek behar zutena deskantsua zen, atsedean hartzea. Era hartan aurrera jarraitzea, bertan bizia bukatzeko arriskuan jartzea zen. Baina etorri zen egun txarra ere. Halako batetan, Hal hori konturatu zen, janarien erdia bukatu

zela, eta bidaiaren laurdena besterik ez zutela osatu. Orduan, alderantziaz jokatzeko erabakia hartu zuten: janaria urritu, batere gabe zakurrak gera ez zitezen, eta ibilaldiak luzatu. Baina beraien ere ez ziren gauza goizean goiz abiatzeko, ezta ere gauean berandura arte bidaian egoteko. Ez zekiten ez txakurrak tratatzen, ezta ere bere buruarekin nola jokatu.

Lehenengo erori zena, Dub izeneko zakurra izan zen. Bizkar odoldua gaiztotu zitzaion. Garaiz sendatu izan baliote ez zitzaion horrelakorik gertatuko. Ez zen gauza pauso bat ere emateko. Hal horrek bere errebolberrarekin tiro bat eman zion. Artiko aldean, ezin omen daiteke eskimal zakur baten janari neurriarekin, atzerriko zakur bat bizi ahal.

Beraz, atzerritar sei zakurrak hiltzera behartuak zeuden. Terranova hil zen, hurrengoan beste hiru, azkenean beste bi.

Etorri berritan, Txarles, Hal eta Mercedes, bere artean goxoak ziren, gero laster zakartu ziren. Ibilaldi hura, abentura zen artean, pozik zeuden. Baina, gero, konturatu ziren, ametsak amets, nahiko gogorra zela. Etsi ezina. Eta, eraman ezinik zeuden. Baina berandu zen. Bide erdian ezin geldi ez atzera, ez aurrera. Hiruak egun osoa errietan pasatzen zuten. Batek hau zioela, besteak hura zioela. Haien arteko sinpatiak bukatu ziren. Inguru haietan esaten da, Artiko alderdian lan egiten duten gizonak, halakoxe pazientzia berezia hartzen dutela. Hauek ez zuten horrelakorik urrutitik ere ezagutzen. Ez zuten inongo ideiarik ere. Sufritu besterik ez zuten egiten. Egun guztian minez zeuden, buruko minez, hankako minez, tripako minez...

Txarles eta Hal egun guztian errietan zeuden. Mercedesek, batzuetan, bati ematen zion arrazoa, bestetan besteari. Nork moztu behar zuen egurra, nork behar zuen sua, beti erretolikan, bakoitzak zor zitzaion baino lan gehiago egingo balu bezala. Han azaltzen ziren ahotara, baten, bestearen etxeko, senide, ahaide, senitarteko eta trapu zahar guztiak. Horrela egun guztian, baina bitartean, sua piztu gabe eta zakurrak baraurik.

Mercedes mindua zegoen goitik beheraino. Gizonak zakar tratatzen zuen. Non zeuden garai bateko mehatxuak? Horregatik, abandonatua balego bezala azaltzen zen. Negar egiten zuen. Ia ez zuen lehen bezala zakurren errukirik. Neska polita zen, baina hark ere bazituen bere kiloak, eta leran jartzeko gehiegi. Batik bat era hartako zakurrentzat. Jarri bazen jarri zen,

zakurrak lehen ere larri ziren eta ezin zuten asko aurrera jarrai. Senarrak eta anaiak erregutu zioten, altxatzeko. Baina, berak negar egiten zuen, mina zuela, ezin zuela, ez dakit zer eta badakit zer...

Halako batean, leratik kendu ere egin zuten. Baina berak, ume mimatu batek baino okerrago, hankak lasatu eta lurrera erori zen. Beste biek aurrera segi zuten. Baina hiru mila egin zituztenean, lera arindu, Mercedesen bila joan, ekarri, gainean jarri eta segi zuten aurrera. Gauza onik ez.

Berak ere hainbeste sufritzen baitzuten, ez ziren konturatzen zakur haiek, egun batetik bestera denak hilko zirela. Halek, gogortu egin behar zela esaten zuen. Baina, ez Txarlesek, ez Mercedesek ez zioten kasurik egiten. Eta gero, hura lortzearren, ero baten gisa, zigor batetan zakurren kontra jartzen zen. Five Fingers aldera iritsi zirenean, zakurren janari guztia ahitua zegoen. Hortzik gabeko atso zahar batek, zaldi haragi lehortua eskaini zien. Trukean Halek gerrian zeraman errebolberra eskaini zion. Eta trukea egin zuten. Janari hura izoztua zegoen. Ez zen erraza jaten. Zaldiaren larrua zirudien. Eta hark ez zien zakurrei izugarritzko indar berririk ematen.

Guzti horren tartean, Buck nolabait zihoan aurrera eta aurrera, taldeari tiraka eta tiraka. Tiratzen zuen ahal zuen neurrian, baina ezin zuenean, danba, lurrera erortzen zen. Han gelditzen zen, zigorrak berriro suspertzen zuten arte. Bere ilearen garai bateko, gozotasuna eta argitasuna agortu zen. Ilea zikindua zuen eta erori egiten zitzaion. Bere giharrak, zain korapilatuak ziruditen. Bere hezurduraren hezur guztiak bistan zeuzkan. Penagarria; baina haren bihotza ikaragarria zen.

Beste zakurrak baldintza berdinetan zeuden. Hainbeste sufrituta gero, zigorraren minik ere ez zuten sentitzen. Erdi bizirik, edo hobekiago, erdi hilik zeuden. Hezur hutsetan. Nonbait gelditzen baziren, lurrera erortzen ziren. Bizitzaren hariak ozta-ozta irauten zien. Batzuetan bazirudien hura ere agortzera zihoala. Zigorra bizkar gainera erortzen zenean, bizi hari hori zerbait suspertzen zen, ez asko, eta denak altxatzen ziren, nolabait...

Egun batean, Billee zintzoa ere erori zen. Halek ez zuen errebolberrik eta, aizkora eskutan

hartuaz, burua hautsi zion kolpe batez. Gero gorputza askatu eta bide bazterrean utzi zuen. Besteak ulertu zuten zein izan zitekeen haien etorkizuna. Hurrengo egunean, Koonan izan zen: bost zakur gelditzen ziren: Joe, gaiztoa izateko ere gauza ez zela, Pike, erdi herren, Sol-Leks begi bakarra, oraindik ere ibili nahi eta ezin, Teek, ia neguan ibili gabea, beraz ikasi gabea ere bai, eta Buck, beti taldearen buru, ahal zuena egiten. Ia ez zitzaion agintzea ere bururatzen. Ahuldua, ezinean. Garai bateko zakur eder hura!

Udaberri giro ederra zegoen. Ez zuten ez gizonak ez zakurrek nabaritzen, ordea. Eguzkia gero eta azkarrago jaikitzen zen eta gero eta beranduago oheratzen. Goizeko hiruretan sortzen zen egunsentia, eta argi distirak gaueko bederatziak arte irauten zuen. Edertasun zoragarria. Denak bizi baten arnasak pizten zituen. Negu guztian hilda bezala egondako landareak izerdi berriz suspertzen ziren. Haritzak eta lertxunak, kimu berriz josten ziren. Basaberak eta mahatsak jantzi berdez estaltzen ziren. Kilkerrak kantari. Egunez, egundoko animala mota desberdinak, eguzki bila irteten ziren. Katagorriek oihu egiten zuten, txoriek abestu, basa ahateek zerua betetzen zuten eta bere karraskak nonahitik entzuten ziren.

Aldapetan, erreka eta errekaen murmurio isila entzuten zen. Dena desizozten zen, dena biziaren dardarizoak mugitzen zuen. Yukon guztia borrokan zegoen, neguko izotz lodiak uxatu nahian, azpitik eta gainetik urtu nahian. Zuloak nonahi egiten ziren, nonahitik etendurak, eta pitzadurak. Ibaiak irensten zituen jela pusketak ahulenak. Eguzki beroak, haize epelak lasterka egiten zuen. Bien bitartean, bi gizon eta emakume bakar haien espedizioa aurrera zihoan, heriotz bila joango balira bezala.

Zakurrak indargabetuak zeuden. Mercedesek, lera eserita, negar besterik ez zuen egiten. Hal biraoka zegoen denbora guztian eta Txarles desesperatua. John Thornton jaunaren kanpamentura iritsi ziren, White River ibaiaren sorlekuan. Gelditu ziren bezain azkar, zakurrak, hilda baleude bezala, etzan ziren lurrean. Mercedesek John Thornton jaunari begiratu zion eta begiak lehortu zituen. Txarles enbor baten gainean jarri zen. Halek hitz egin zuen. Johnnek, behar zuena bakarrik erantzun zion. Ez gehiago. Era honetako jende asko ezagutu zuen, eta alferrik izaten zen aholku onak ematen denbora alferrik pasatzea. Gero, berea egiten zuten beti.

— Han goian esan ziguten bideak zartatzen ari zirela eta ez joateko. Ez ginela White River alderdiraino ere iritsiko — erantzun zion Halek. Baina, honantz ere iritsi gara.

— Eta egia da hori — erantzun zion Thornton jaunak. Laster bide urratuak desegino dira. Arriskua dago haiekin batera ur azpira joateko. Astakeria bat da aurrera jarraitzea. Ni, behintzat, Alaskako urre guztiarengatik ere ez nintzateke arriskatuko.

— Baina zu, ordea, gizon zuhurra zara, ez zaude gu bezala erotua — erantzun zion Halek, harro.

Dena dela gu aurrera goaz, Dawsonera iritsi behar dugu eta.

Eta zigorra askatu zuen esanaz:

—Ale Buck, ordua da, eta goazen aurrera.

Thornton jaunak bere lanean jarraitu zuen, urki bastoi bat hornitzen. Alferrik zen hari ezer esatea. Baina zakur taldeak ez zion Hali kasurik egin. Hal eskuin ezker ikaragarritzko zigorra zabaltzen hasi zen. John Thornton jaunak ezin zuen etsi, baina estutu zituen ezpainak eta ez zuen ezertxo ere esan. Sol-Leks izan zen lehenengo altxa zena; hurrena Joe, uluka tristeak eginaz. Pikek ahaleginak egin zituen altxatzeko. Birritan ezin izan zuen. Eta hirugarrenean altxa zen. Buck ordea ez zen mugitu. Zigorradak gainean zituen. Ez alferrik, ez zen hura handik mugituko. Une batean baino gehiagotan Thornton jaunak zerbait esan edo egiteko gogoia izan zuen, baina eutsi zion nolabait. Begiak malkotan zituen hark. Zigorra bukatzen ez zenez gero, alde batetik bestera eraman ezinik, hasi zen urduri.

Lehenengo aldiz zen Buck zakurrak obeditzen ez zuela. Halek utzi zigorra eta eskumakila hartu zuen. Berak ere ia ezin zuen altxa: baina, beste aldetik, ez altxatzea erabaki zuen. Laster ikaragarritzko zoritxarren bat zetorkiola usaintzen zuen hark. Erreka bidea hartu zutenetik zegoen horren beldurrez, eta une hartan gehiago iruditua zegoen. Egun guztian jela biguna zapaltzen etorri ziren, eta une batetik bestera hura desegino ote zen errezeloa hezurretan zeukan. Ez zen, bada, mugitu. Lehendik hain ahuldua zegoelarik, ez zuen ia zigorraren gogorrik sentitu. Kolpeak ugaritzen zihoazen heinean, bere bizitzaren haria urritzen zihoan. Bukatzen,

beharbada. Bazekien zigortzen zutela, baina dena urruti zegoela iruditzen zitzaion. Min kutsuak ere alde egin zion. Ez zuen ezertxo sentitzen, entzuten zuen eskumakilaren zartada bere bizkarretan. Baina bere bizkarra, bere gorputza ez zen berea, urruti zegoen zerbait baizik.

Eta bat-batean, abere basati baten orroa jaurtikiaz, John Thornton, eskumakila zuen gizon haren kontra jaurti zen. Halek atzera bi pauso eman zituen. Mercedes ere oihuka hasi zen. Txarlesek begirada huts bat egin zuen, bestetarako gauza ez baitzen.

John Thornton, Buck zakurraren ondoan zegoen, zer esan asmatzen ez zuela. Hain haserre baitzegoen:

— Berriz zakur hau jotzen baduzu, akabatu egingo zaitut — esan zion.

— Zakurra nirea da — erantzun zion besteak. Ken zaitez nire bidetik, nahi ez baduzu hemen bertan kontuak garbitzea. Dawsonera noa eta hori da guztia.

Baina Thornton jauna ez zegoen uzteko. Halek atera zuen gerritik basa-labana. Mercedes oihuka zegoen. Thomson jaunak, aizkora kirtenarekin behatzetan jo eta labana lurrera bota zion. Eta Hal hura jasotzera makurtu zenean, beste kirtenkada bat eman zion. Gero berak hartu zuen labana eta kolpe batez Buck zakurraren uhala moztu zuen.

Halek ez zuen borrokarako indarrik. Arreba ere histeria batean zegoen, eta beharbada ulertu zuen Buck, heriotzaren gertuegi zegoela abiatzeko. Handik minutu batzuetara, bi gizon eta emakumeak, erreka inguruko bidea hartu zuten. Buckek entzun zien eta buruarekin begiratu ere bai. Pike zihoan lehenengo, Sol-leks leraren ondoan eta tartean, Joe eta Teek. Denak balantzaka. Hal gidari eta atzean estropezuka Txarles.

Buck begira zegoen artean, Thorntonek begiratu zion ia hezur hautsirik ba ote zuen. Konturatu zen, makilakada galantak besterik ez zituela, eta janari falta izugarria. Ordurako mila laurden bat egina zuten besteak. Gizona eta zakurra haiei begira zeuden. Begirik galdu gabe. Ezinean zihoazen, baina beti aurrera. Halako batean, ikusi zuten elur leraren ipurdia altxatzen. Halek gidaritzat utzi gabe, jirabira bat eman zuen airean. Txarlesek ere pauso bat atzera eman nahi

izan zuen. Mercedesen oihu latza entzun zen gero. Hala denak bistatik galdu ziren. Gero, ez zen jeletan aho zabal bat besterik ikusten. Bidea desegin zen.

John Thornton eta Buck elkarri begira jarri ziren:

— Deabru bat haiz hi! — esan zion gizonak. Eta zakurrak eskua milizkatu zion.

VI. GIZONAREKIKO MAITASUNA

Lehengo abenduan edo, Thornton jaunari hankak izoztu zitzaizkion. Bere lagunek, prestatu zizkioten behar zituen gauza guztiak, eta Dawson aldera itzuli ziren baltsa bat ekartzera. Oraindik ere Buck bereganatu zuenean herren pixka bat egiten zuen. Baina gero giro onak etorri ziren eta azkeneko min kutsuak alde egin zion. Udaberrian, bizimodu lasaiarekin, bere indar guztiak berreskuratu zituen.

Buckek negu hartan hiru mila milia egin zituen. Eta deskantsu hura ezin hobeto etorri zitzaion. Alfer samarra bihurtu zen. Baina, han denak alferkeriara emanak zeuden. Bai bera, bai Thornton, baita Skeet eta Nig zakurrak ere. Presarik gabe baltsaren zain egon ziren. Skeet perdigoi txakur txiki bat zen. Buck sendatzen zen artean, berarekin adiskidetasun handia egin zuen. Skeet zakur leiala zen. Eta Buck minez zegoen bitartean, bere zauriak milizkatzen zizkion, azkarrago senda zedin. Nig ez zen hain maitagarria. Zakur beltz eta handia, begi irribarretsukoa eta jokabide leialekoa.

Buck harrিতuta zegoen, ez baitziren beste bi zakurrak batere jeloskorrak. Bazirudien Thornton jaunaren maitasunak eta izate onak guztia onbideratzen zuela. Horrela hasi zen Buckentzat bizi berri bat, eta benetako maitasuna zer zen ezagutu zuen. Lehen, Miller epailearen etxean oso bestelakoa zen. Han zaintzen zuten baina interesa zutelako. Hemen ez zen horrelakorik. Berak Thorntonekiko sugar antzeko mirespena sentitzen zuen.

Gizon hura izan zen bere salbatzailea. Ez zen posible hura baino nagusi jatorragorik aurkitzea. Besteak zakurren alde egiten zutena, edo betebeharrez edo interesez egingo zuten. Hark ordea, bere seme balira bezala zaindu eta mantentzen zituen zakurrak. Ez zion inori inoiz bere agurra ukatuko. Sarritan beraiekin hizketan (berak hala zioen) egon ohi zen. Zakurrak bezain ondo pasatzen zuen berak ere. Zenbaitetan bere esku zakarren artean astintzen zuen Bucken buru handi hura eta hitz zatar ugari botatzen zizkion. Buckek hitz zatar haiek, maitasun hitzak balira bezala hartzen zituen. Saioa bukatzen zuenean, zakurra atzeko hanken gainean jartzen zen Thorntoni begira, bere aho, lepo, begi eta abar hitz egin nahi balu bezala.

— Hitz egitea besterik ez zaik falta! — esaten zion zakurrari.

Bucken maitasuna azaltzeko modua ere ez zen oso biguna. Berak hitz zatar haietan gizonaren maitasuna nabaritzen bezala, era berean gizonak, Buck zakurraren hozkada hertsia bere hatzaparretan nabaritzen zituenean, zakurrak bere maitasuna azaltzeko modua hura zuela ulertzen zuen.

Baina Buckek nagusiarekiko mirespena zuen. Eta gehienetan bere ondoan baina lotu gabe egon ohi zen. Ez zen Skeet bezala Thornton jaunaren mimo zain egoten, edota Nig bezala, ez zuen burua nagusiaren belaunetan ipintzen. Bera inguruan, gizona adoratzeko, berari begira, bere mugimendu guztiak arretaz segitzen egon ohi zen. Orduak eta orduak horrela. Sarritan bien arteko batasun hura adierazteko nagusiak ere burua itzultzen zion, bere inguruan eta berari begira zegoela bazekiela adierazteko.

Buckek ez zuen bere nagusia bistatik galtzen. Denda barruan nahiz dendatik kanpora, haren pausoak jarraitzen zituen. Beldur zen, hainbeste aldiz bezala, berriro ere nagusia galduko ote zuen. Ideia horrek askotan ez zuen bakean uzten. Orduan etxe atarira joaten zen, nagusiaren arnasa entzuterat.

Baina, John Thornton zion maitasuna halakoa izan arren, bere basoarekiko joerak, bere barruan zeraman basapiztiak, erne irauten zuen. Are eta gehiago Artiko aldeko lurralde haietan. Etxe barruan eta sutondoan ikasi zuen fideltasunarekin batera, ez zuen galdu basoko animaliak duten maltzurkeria eta basakeria. Basokoa zen odolez, ez hego aldetik etorritako zakur biguna. Sarritan pentsatu ere egin zuen, gizon hari zion maitasun gartsu hura ez bazen, hamaika aldiz ihes egingo zukeela odolak agintzen zion oihan aldera. Ez zuen uste berriro harrapatuko zutenik. Hainbesterako maltzurkeria bazuen.

Bazituen bere gorputzean hamaika zakurren hainbeste hozkada. Etxeko bi zakurrak lasaiegiak ziren borrokatzeko. Eta gainera John Thornton jaunarenak ziren. Baina beste edozein zakur bere bidera etortzen bazen, bere nagusitasuna onartu beharko zuen. Bestela hark ez zekien barkatzen. Borroka egingo zuten eta haien arteko borroka bien baten heriotzarekin bukatuko zen. Beste biderik ez zegoen. Berak ez zekien errukitzen. Errukia bigunkeria zen basapiztientzat. Ondo ikasi zuen edo erakutsi zioten zein zen eskumakila eta haginkadaren legea.

Ez zen bera zakur urtetsua. Baina bere barnean eternitatea sentitzen zuen taupaka. Azalez, sutondoan esertzen zenean, edozeinek esango zuen, honelako eta halako zakur bat besterik ez zela. Baina barnean berak asaba zahar guztien odola zeraman, haien basakeria guztia. Guztiak zituen gogoan. Berak begiratzen zuena, begiratzen zuten haiek, berak jaten eta gozaten zuena, gozaten zuten haiek ere. Berak lo egiten zuenean, haiek ere lo egiten zuten. Zenbaitetan, basoaren deia entzuten zuenean, ezin zuen etsi eta han joaten zen, aurrera eta aurrera, basotan barna, nora jakin gabe, zergatirik gabe, baina beti aurrera. Baina hango lur gozo eta zuhaitzen itzaleraino iristen zen bezain pronto, berriro, John Thornton jaunari zion maitasunak atzera itzultzeko agintzen zion. Eta atzera itzultzen zen.

Thornton zen, eta ez beste inor, lotzen zuena. Beste bidaztiak mehatxuak egiten zizkieten. Alferrik, ordea. Berak ez zituen sentitzen. Batzuetan, aspertuta urrutiratu ere egiten zen. Hans eta Pete, Thornton jaunaren sozioak itzuli ziren baltsarekin. Eta asko goratzen zuten bere gorputza, bizkortasuna eta abar. Baina berak ez zien kasu gehiegirik egiten. Bi haiek Thornton bezain jatorrak eta zakarrak ziren. Baina alferrik. Berak ere ulertu zuten nolakoa zen Buck eta geroztik bakean uzten zuten. Zakur batek edo ematen du adiskidetasuna edo utzi egin behar da.

Beste aldetik bere nagusiarekiko maitasuna, bazirudien egunetik egunera, gero eta sakonagoa zela. Inork ez zuen Bucken lepagainean pisurik jarriko berak ez bazen. Berak esandakoa agindu sakratua zen Buckentzat. Behin, baltsa prestatu eta gero, Dawson herrian, guztiak itsaslabar baten gainean itsasoari begira zeuden. Harkaitz ebakia zen itsasoraino. Thornton jaunari ideia ero bat bururatu zitzaion. Eta esaten die Hans eta Pete bi lagunei: Ikusi, ikusi nolako zakurra. Eta agintzen dio:

— Salta ezak Buck!

Segituan jauzi zen amildegian bere gainera Buck. Biak harkaitz ebaki haietan, erdi borrokan korapilatu ziren, beste bi gizonak banatzeko zer egin ez zekitela.

— Ikaragarria da — esaten zuen Petek.

Eta Thorntonek:

— Ikaragarria, ez, gehiago oraindik. Batzuetan neroni ere beldurra ematen dit.

— Ez nuke, honek eraso batean harrapatzen duenaren larruan egon nahi — erantzun zion Petek.

Eta besteak:

— Ezta nik ere.

Eta begira nondik, urtea bukatu baino lehen, Peteren beldur hura baieztatu zen Circle Cityko taberna batean. Bazen han, gizatxar bat, beti borrokan-eta ibiltzen zen horietakoa: “Black” Burton. Eta nola ez, kanpotar bat zirikatzen hasi zen, biak haserre bizian jarri arte. Thornton gizon bakezale zenez gero, bien artean jarri zitzairen, bake bila. Baina delako Black Burton horrek, ikaragarrizko muturrekoa eman zion Thornton jaunari, inongo abisurik gabe. Gizona balantzaka zen, ahoa odoletan zuela, ia erori arte. Mostradorearen gainean jarri zituen besoak. Han zegoen, noski, Buck, txokoan beti bezala nagusia zaintzen.

Han zeudenak, halako batean, ez zaunka, ezta ulua ere, orroa entzun zuten, eta ikusi zuten lurretik tximista bezala Burtonen lepora salto egiten zuela Buckek. Gizonak, senaz edo, altxa zuen besoa. Hark salbatu zion bizia, baina atzeraka erori zen, Buck gainean zuelarik. Askatu zituen haginak gizonaren besotik, hain baitzeuzkan tinkatuak, eta berriro ere saiatu zen Burtonen lepoa harrapatzen. Oraingoan, hozkadak lepoa ebaki zion. Jendea Bucken gainera erori zen, eta lortu zuten guztien artean Buck urrutiratzea. Sendagileak lepo hura begiratzen zuen bitartean, Buck han zebilen, alde batetik bestera, amorru biziz, berriro ere gizon hura erasotzeko asmoz. Laster bertako jendeak bilera bat egin zuen, ia norena zitekeen errua ikusteko. Denak garbi ikusi zuten Bucken errua ez zela izan. Bera probokatua izan zela, alegia. Laster, Alaska guztian egundoko sona handia hartu zuen zakurrak.

Beste behin ere, Buckek bere nagusiaren bizia salbatu zuen. Udazkena zen Forty Mile ibaiko urak bizi zetozen. Kanoa bat atoian eramaten ari ziren hiru lagunak. John, ontzitxoaren

barnetik, arraun bat eskutan zuelarik. Bere bi lagunak ibai bazterrean, Hans eta Pete, zuhaitzez zuhaitz, lotu-askatu eginik, laguntzen zioten. Buck ibai ertzean zegoen, urduri eta larri, nagusiari begirik kendu gabe. Baina pixka bat beherago bazegoen harkaitz buru bat. Hura salbatu behar zen. Thornton jaunak arraunarekin indar eman nahi zion ontziari. Behaztopa hura salbatuta gero, urak halako zurrunbiloa egiten zuen, ze ustekabeen ikaragarritzko abiaduran abiatu baitzen. Hans saiatu zen sokari heltzen. Nolabait heldu zion, baino bultzadaren indarrez, kanoa zilipurdika joan zer eta Thornton jauna hankaz gora. Ur nahasiak zeuden lekuraino, hain zuzen, lekurik txarreneraino. Handik bizirik irteten ez zen giro izango. Buckek jauzi egin zuen uretara, eta indar ikaragarriak eginaz, nagusia zegoen lekuraino ailegatu zen. Honek laster heldu zion, eta Buck igerian hasi zen bazterrean. Baina handik joatea oso zaila zen, zeren urak ikaragarritzko burrunba baitzekarren. Urak trumoi guztiak baino zarata gehiago egiten zuen harrien kontra mila pusketan lehertzen zenean. Thornton jaunak bazekien, egoera horretan, ez zuela sekulan bazterrean iristea lortuko.

Larritasun hartan, harkaitz bati itsatsi zion, jo zuen beste bat, eta itxurarik gabeko indarrarekin hirugarren bat kolpatu zuen. Utzi zuen Buck eta Harkaitz irristakor bati heldu zion.

— Zoaz lehorrera, Buck! — deiadar egin zion nagusiak. Lehorrera!

Zakurrak ur gainetik altxa zuen burua, eta ur ertz aldera abiatu zen. Baina alferrik, ez zen erraz iritsiko. Ahalegin biziak egin zituen. Hans eta Petek atera zuten azkenean, ia gehiago ezin zuen une berean. Eskerrak horri, bestela txarrena ere gerta zitekeen.

Hans eta Petek bazekiten, arroka irristakor batean ezin dela minutu batzuk besterik iraun. Ahal zuten arte korri egin zuten, txokotik, Thornton zegoen inguru samarreraino. Lotu zioten, kontuz, lepotik txakurrari soka. Buck ausarki abiatu zen nagusiaren tokiraino. Baina nahastu egin zen. Eta ez zen konturatu beranduegi izan arte. Thornton zegoenetik hamabiren bat metrotara pasa zen. Hansek tira zion sokatik. Buckek burua uretan sartu zuen, eta ibaiertza lortu arte ez zuen mugitzerik izan. Besteak sendo tiratzen zion. Hans eta Pete inguratu zitzaizkion, arnasa hartzen laguntzeko. Erdi itota zegoen gizagaixoa. Buck altxa zen, baina berehala lur jo zuen. Halako batean urrutitik entzun zen Thorntonen oihua. Isilik eta urrutitik. Denak, hitzak ez entzun arren, ulertu zuten, ezin zuela han segi, laster joango zela uretara.

Argindar kolpe batek jo izan balu bezala, altxa zen Buck, eta berriro joan zen lehentxeago uretara salto egin zuen lekuraino.

Lotu zioten berriro lepotik soka eta jauzi egin zuen berriro. Oraingoan ez zen nahastu. Lehengoan nahastu egin bazen, ez oraingoan. Batek soka tinko mantentzen zuen bitartean, besteak pixkana-pixkana askatzen zuen. Joan zen igerian Buck nagusia zegoen pareraino, eta gero tximista bezala abiatu zen, nagusiarengana. Iritsi zenean, nolabait, Thornton jaunak lepotik heldu zion. Hansek, badaezpada ere, soka zuhaitz bati lotu zion. Biak hasi ziren tiraka. Buck eta Thornton ur azpian galdu ziren. Besteak berriz, sokatik tiraka. Noizbait, lortu zuten biak zokoraino eramatea.

Thornton erdi itota zegoen. Bere lagunak astindu zuten, ahoz behera etzan zuten, eta aurretik atzera, atzetik aurrera, bultzatzen zioten. Suspertu zenean, bere lehenengo begirada zakurrarentzat izan zen. Hau hilda bezala zegoen lurrean. Pixkana-pixkana animatu zen. Thorntonek begiratu zion, aztarrikatu zizkion bazterrak. Hiru saihets hautsiak aurkitu zizkion. Eta gero esan zuen:

— Egina dago, gaur hemen geldituko gara. Hemen jarriko dugu kanpamentua.

Eta han egon ziren, Buck indartu eta sendatu zen arte.

Negu hartan, Buck zakurrak beste balentria latz bat egin zuen Dawson aldean. Orduz gero, bere izena Alaska guztian oso entzuna izan zen. Eta Thornton eta beste bi bazkideentzat oso dirubide ona izan zen. Han irabazi zuten diru hari esker, egin ahal zuten beti amets egin zuten bidai bikain bat, sortalde aldera.

Eldorado izeneko taberna batean zeuden. Bakoitzak bere zakurrak gorai patzen zituen. Baina hain ospetsua zenez, denak Buck zuten gogoan. Hizketa aspertu hartan, batek esan zuen, bere zakurra gauza zela 500 libra kargarekin lera bat mugitzeko. Beste batek, ordea, seiehunekin ere gauza zela berea adierazi zuen, eta hirugarren batek zazpiehunekin.

— Ba, ba! — esaten du Thorntonek, zaudete isilik. Buck gauza duk, baita mila libra eramateko

ere.

— Eta jeletatik askatu ere bai. Eta ehun metro eraman ere bai? — galdetu zion Matthewson zeritzan batek. Hango gizon dirudun bat zen.

— Baita ere — erantzun zion arro Thortonek.

— Ondo dago — erantzuten dio.

Matthewsonek, denek entzuteko eran. Apustua doa, ezetz hori, mila dolar.

Eta esaten zuen bitartean zakutxo txiki bat mahai gainera bota zuen.

Ez zuen inork erantzun. Thorntonon harrokeriak izan zuen errepika. Thornton lotsatu ere egin zen. Masailak gorritzeraino. Azkar esan zuen, esan zuena. Ez baitzekien Buck gauza izango ote zen mila libra garraiatzeko. Tona erdi bat! Jaungoikoa! Esan zuenak berari ere beldur ematen zion. Bazuen, nola ez, Buckengan konfiantza. Pentsatu ere egin zuen sarritan, gauza izango zela halako pisu bat eramateko. Baina, frogatu, ez zuen frogatu. Dozena gizonen begiak beregain zituen, zer erantzungo, isilik. Beste aldetik, ez zeuzkan mila dolar. Ez berak, ez Hans edo Petek ere.

— Kanpoan badut, hogeitazko berrogeita hamar librakoeekin kargatutako lera. Beraz, ezer prestatu beharrik ez duzu.

Thorntonek ez zion erantzun. Zer esan behar zuen? Bati begira, besteari begira, ezer pentsatzen ez zuelarik, non aurkituko animatuko zuen begirapen bat. Berehala, han ikusten du Jim O'Brien izeneko gizon aberats handi bat. Garai batetan adiskide izanak ziren. Eta sekula egitera atrebitu ez zena egitera ausartu zen:

— Prestatuko al dizkidazu mila dolar? — galdetu zion.

— Nola ez bada? Tori, badakit galdu egingo duzula baina...

Eldorado barruan zeuden guztiak, antxintxika kaleratu ziren apustu ikaragarri hura ikusteko. Mahaiak segituan hustu ziren. Ehunka gizon pilatu ziren zakuz betetako leraren inguruan. Matthewson jaunaren lera mila librarekin kargatuak, bazeramatzan bi ordu atarian, eta han egiten zuen hotzarekin (30 gradu zero azpitik), zeharo itsatsia zegoen. Batzuek bota zuten trabesa: ezetz lera hura mugitu ere: bi bati. Gero eztabaida izan zen, zer esan nahi ote zuen lera askatzeak. O'Brien jaunak zioenez, lerak askatua egon behar zuen, Buckek egin behar zuena mugitu eta eramatea zen. Matthewson jaunak ezezkoa zioen. Desafio hura jarraitzen zuten gehienak bere alde zituen. Apustuaren proportzioa, hiru baten kontraraino igo zen. Ez zuen inork arriskatu nahi. Ez zegoen inor, Buckek irabaziko zuela uste zuenik. Thornton berak ere apustua ezinbestean onartu zuen; orain, ordea, lera kargatua ikusiaz, eta bertan egon ohi ziren hamar zakurrak begiztatuaz, gero eta ezinagoa iruditzen zitzaion apustu hura irabaztea. Matthewson pozik zegoen, ziur baitzegoen irabaziko zuela.

— Nahi al dituzu beste mila jokatu? — galdetu zion Thornton jaunari.

Thornton ordea, berotzen ari zen. Eta une hartan apustulari bihurtua zegoen. Hark ez zituen mila dolar. Bere bi lagunei, Hans eta Peteri deitu zien. Hiruren artean berrehun dolar bildu zituzten. Eta zer esanik ez, haientzat hura asko baitzen. Dena jokatu zuten. Gehiago ez, ez zeukatelako. Beraz, berak berrehun jokatzen zituzten, eta Matthewson jaunak hiru aldiz gehiago, seiehun.

Lehendik lerak lotuak zeuzkan hamar zakurrak askatu zituzten. Eta Buck ipini zuten, bere txakur-tresnekin. Inguruko urduritasuna berari ere kutsatu zitzaion, eta nabaritzen zuen, zerbait inportantea egin zezakeela nagusiaren alde. Bere itxura ikustean jendeak, alaka miragarritzko bat bota zuen. Hura zen zakurra, gero! Bere gorputz hura, ikusi zuten ederrena zen. Ez zuen koipe izpirik ere sobran. Dena zen miragarri. Ilea distiratsua. Berak gorputzean zituen ehun eta berrogeita hamar librak, urrea pisatzen zuten, urrea balio zuten. Geldirik egon bere ile guztiak diz-diz egiten zuten, eta tinko jartzen zitzaizkion unetik unera. Bazirudien gorputz hartan sasoi gehiegia zegoela, bizi gehiegi zeukala eta bazter guztietatik ihes egiten ziola.

Bere bular zabalak, hanka sendoak, denak bat zetozen gorputz bikain harekin. Jendeak zakur haren giharrak ikusi zituen. Burdinazkoak ziruditen. Orduan apustuak erdira jaitsi ziren: doble bakarrari.

Bazegoen guzti haien artean inguru hartako aberats bat. Eta zera esan zion Thortoni:

— Zortziehun dolar emango dizkizut zakur horregatik. Apustua bera egin baino lehen.

Thornton jaunak ordea, buruarekin ezezkoa eman zion.

— Urrutira manten zaitetz — esaten zion Matthewson jaunak. Jokoa garbia izan bedi.

Isildu ziren denak. Apustularien ahotsak entzuten ziren, doble bakarrari. Baina alferrik. Inork ez zuen jokatu nahi eta. Denek aitortzen zuten, zakur haren edertasuna, baina berrogeita hamar librako hogeitazaku gehiegi ziren edozeinentzat ere. Ez zegoen zer eginik.

Thornton belauniko jarri zen Bucken aurrean. Beso artean hartu zion burua, baina ez zion eragin jostari zenbaitetan bezala, ezta ere ez zizkion hitz zatarrak esan. Zera esan zion:

— Erakuts iezadazu maite nauzula! Erakuts iezadazu maite nauzula!

Buckek gogotsu uluka egin zion.

Jende guztia hari begira zegoen. Gauza guztiak misterio handi bat hartu zuen. Konjura bat zirudien. Thornton altxa zenean, zakurrak hozkada egin zion eskularruz estalitako eskuan. Eta gogo txarrez bezala askatu zion. Urrutiratu zen Thornton.

— Oraintxe Buck! Ekin...! — esan zion.

Buckek tira zuen apurtxo bat uhaletatik. Gero zentimetro batzuk askatu zituen. Honela erakutsi zioten.

— Arre! — ekin zion Thornton jaunak, isiltasun ikaragarri hartan.

Buck eskuinera makurtu zen, eta uhal guztiak trinko jarri zituen; bere gorputz guztiaren pisu guztia gerarazi zioten uhalek. Pisuak karraska egin zuen, patintxoetatik.

— Ezkerrera! — agindu zion Thorntonek.

Buckek errepikatu zuen froga, oraingoan ezker aldera. Lehengo karraska, orain zartako bihurtu zen, lerak bere ardatzaren gainean dar-dar egin zuen eta zentimetro batzuk alde batera mugitu zen. Jendeak arnasari ere eusten zion, konturatu ere egin gabe.

— Orain, arre.

Thornton nagusiaren ordena, abisua izan zen. Buckek ekin zion aurrera, berebiziko indarrarekin; bere gorputzeko gihar guztiak korapilatu ziren, ile gozo hartan nabari arte. Bere bularrak ia lurra jotzen zuen eta hatzaparrak elurretan erretenak irekitzen zituzten. Bazirudien lera abiatzera zihoala. Halako batean, Buckek irrista egin zuen. Begira zegoen batek birao bat bota zuen.

Gero elur-lera abiatu zen: astinaldika zihoan, baina aurrera. Baina jadanik ez zen lera gelditzen. Metro erdi bat... metro bete... bi metro... Astinaldiak gero eta errazagoak ziren. Lerak abiadura hartzen zuen. Buckek indarra gutxiagotu zuen orduan, martxa erraza eta arina bihurtu zen arte. Hasi zen jendea arnas hartzen, konturatu gabe, geldirik, hartu gabe egon zirela ere. Thornton leraren atzetik zihoan, hitz goxoak esanaz. Nondik norakoa aurretik erabakia izan zen. Eta Buck bukaerara iristen ari zen bezala, jendearen oihuak eta alakak indar hartuz joan ziren. Iritsi zenean denak txalo zartaka zeuden. Baita Matthewson bera ere. Zapiak eta kapelak lainotara igo ziren. Geroxeago guzti hark, eroetxe bat zirudien.

Thornton belauniko jarri zen Bucken aurrean, estutu zion burua bere besoetan, eta alde batetik bestera astindu zuen.

— Entzun, Thornton, — esaten zion lehengo aberatsak. Mila dolar emango nizkizuke zakur

horregatik. Mila eta berrehun nahi baduzu.

Thorntonen begiak bustiak zeuden. Bere begietatik malko lodiak zerizkion.

— Jauna, ez ezta mundu guztiko urre guztiarengatik ere. Beraz utz nazazu bakean.

Zakur eta nagusi, biek maitasun itsu batetan bezala, elkar estutu ziren. Begira zeudenak ere atzera jo zuten. Ez zuten bien arteko maitasun agerpen hura moztu nahi.

VII. MISTERIOZKO DEIAREN OIHARTZUNA

Bost minututan hainbeste diru irabaztea laguntza handia izan zen John Thornton eta bere bi lagunentzat. Aspalditik zituen zorrak kitatu zituen. Horretaz gainera, diru harekin ahal izan zuen bere amets bat betetzea: Sortaldera bidaia bat egitea. Aspalditik zuen lurralde haien entzuna. Oraindaino ez omen zen handik inor bizirik itzuli. Baina bazen sona, han ikaragarriko urre-meategi bat zegoela. Aspaldiko sona zen hura. Hilzorian zegoen norbaitek handik ekarritako urre apurrak erakutsi ere egin omen zituen, inon inoiz ikusi ez ziren bezalako aleak. Bazter haietan ba omen zegoen erdi eroritako txabola bat ere. Horiek ziren sonak.

Baina inor bizirik zegoenik ez zen gauza izan bazter haiez jabetzeko. Hildakoek bakea ematen zuten. Hala, prestatu ziren, bera, Pete eta Hans, Buck eta beste sei zakurrekin ibilaldi hura egitera. Hamaika joanak ziren. Denak porrot egin omen zuten. Abiatu ziren. Ibili zituzten astero hirurogeita hamar mila, Yukon gora, gero ezkerrera ekin zioten, Stewart izeneko ibaia gurutzatu zuten, eta aurrera, Stewart ibaia ari mehe pila bihurtu arte segi zuten.

John Thornton ez zen gizon makal eta bigun horietakoa. Berak ez zion naturari askorik eskatzen. Bera gauza zen, ezer gutxirekin, fusila eta gatz pixka batekin, basoan barna joateko. Presarik gabe, ehizatzen zuena janaz. Beraz, lerako kargarik beharrezkoena munizioak eta jantziak ziren. Ez zuten pentsatu noiz bukatuko zen ere bidai hura.

Buck ere pozik zihoan. Ez zituen lur bazter haiek ezagutzen. Baina, beretzat baso ilun haietan ibiltzea, eta ehizatzea, ikaragarriko gozamina zen. Eguna etorri eta eguna joan, segi eta segi aurrera.

Batzuetan gosea ere pasatzen zuten, nahiko ehizarik ez bazen. Hurrengoan, ordea, tripa ondo betetzen zuten. Iritsi zen uda, eta gizon eta zakur, baltsa gainetan ibili ziren, zenbait mendiarteko laku igarotzen.

Hilabeteak bazihoazen, hilabeteak bazetozen. Beraiek, mugagabetasun handi hartan aurrera beti. Han ez zen gizonik bizi. Behar bada bai. Bestela, nola uler zitekeen txabola galduaren ipuina? Pasa zituzten mendi zintzurak, zenbaitetan gauerdiko eguzkiari begira egon ziren. Elur

eternalak kontenplätzen. Urtearen bukaeran, laku sail ilun eta triste batera ailegatu ziren. Bazirudien ez zela han inor bizi: haize izoztuaren orroa, izotz bloke galantak lur galduetan, eta itsas bazterreko olatuen soinu eresia.

Beste negu batean ere han ibili ziren. Behin, norbaitek noizbait ireki zuen bide bat bilatu zuten. Handik Txabola Galdura joan behar zela zirudien. Baina hasiera eta bukaera gabeko bide bat besterik ez zen; nork egin ote zuen, zertarako, noiz...? Beste behin ere aurkitu zuten ehiztarien etxola bat eta barruan, herdoildutako fusil bat ere. Besterik ez, gizonen arrasto txikienik ere.

Berriro ere udaberria heldu zen. Eta Thornton, Hans eta Petek ez zuten Txabola Galdua aurkitu, baina bai urre meategi bat. Han urrea, lurraren gainean ikusten zen. Hantxe gelditu ziren. Lanean gogotik hasi ziren. Ez zuten egun batean ere atsedetik hartzen. Egunero, diru pila irabazten zuten, milaka dolar. Urre hura, txukun-txukun, gamuza larruzko zakutan gordetzen zuten. Berak erabiltzen zuten txabolatik kanpo. Presaka lan egiten zuten, eta asko. Egunak azkar igarotzen ziren.

Zakurrek ez zuten zer eginik. Han egoten ziren, alferrean, ederki asko. Edota Thonrtonek ehizatzen zuen ehiza ekarriaz. Buckek sutondoan, ordu luze luzeak igarotzen zituen. Gizon beso luzea, hanka motza, eta iletsua zetorkion burura. Irudimenezko eta aspaldiko mundu misterioitsu hura.

Ametsezko mundu haren ezaugarri nagusienak, beldurra zela zirudien. Gizon hark bere bi eskuartean burua estaltzen zuelarik lo egiten zuenean, Buck konturatzen zen bere loa ere ez zela lasaia. Batzuetan erreka ondotik joan ohi zen, gizon beso luze iletsua eta atzetik Buck. Hankak prest edozein arrisku baldin bazetorren ihesari emateko. Batzuetan, isil isilik joan ohi ziren, gizona aurretik, Buck atzetik, dena begi-belarri, noiz arriskua aurkituko zain. Gizon hark, gainera, ikusmen eta usaimen ikaragarria baitzuen. Buck berak bezain ona. Zuhaitzetara igotzen zen, eta batetik bestera salto egiten zuen, bere etxean edo lurrean ibiliko balitz bezala. Zenbaitetan hosto artean lo egiten zuten.

Amets guzti haiekin lotua zegoen berak barru barrutik basoarekiko sentitzen zuen dei ikaragarria. Dei honek gogo eta egonezin berezi bat sortzen zion. Ez zekien ziur zer sentitzen

zuen. Zenbaitetan, basoan barna joan ohi zen, nahiz zaunka, nahiz isilik. Bere muturrarekin goroldioa milizkatzen zuen, edota erdi etzanda, aurrera abiatzen zen. Bestetan loreak usaintzen zituen, edota zuhaitz atzetan ezkututzen zen, Beti erne zegoen nondik entzungo soinuaren bat. Beharbada honela basoko deia errazago entzungo zuela iruditzen zitzaion. Baina ziur jakin gabe, zergatik jokatzeko zuen horrela.

Bultzada gogorra sentitzen zuen bere barnean. Halako batean, beharbada, lurrean etzanda erdi lotan zegoenean, ustekabe altxatzen zen eta abiatzen zen norabiderik gabe, korri, korri eta korri, bide ilunetatik, belartsuetatik, basalore artetik. Atsegin zitzaion bizi hura, hegaztien bizitza zaintzea. Behin egun osoa pasa zuen sasi artean, alde batetik bestera zebiltzan eperrei begira. Baina gehien-gehiena, ilunabarrean ibiltzea gustatzen zitzaion, basoko soinuak entzutea, soinu haien esanahia deszifratzea.

Gau batean, larriduraz esnatu zen. Zerbait entzun zuen. Begiak egonezinik, sudurra erne, azaia tente. Basotik sekula baino hobeki zetorkion soinu berezi bat: ulua luze eta etsia. Eskimal zakurrek egiten duten modukoa. Baina desberdina. Baina dena dela, noizbait entzuna zuen ulua hura. Isilka gurutzatu zuen kanpamendua, eta basoko bideari ekin zion. Ulua hura entzun zuen lekura iristen ari zen bezala, bere ibilia eta pausoak motelak bihurtu ziren, arretatsuak. Eta basoko argiune batera iritsi zen. Hantxe, muturra zerura begira, atzeko hanketan jarrita otso ihar bat topatu zuen.

Ez zuen zaratarik egin. Baina otsoa isildu zen eta norbait zebilela tankera eman zion. Buck ezkutalekutik irten zen, gorputza korapilatuta, beldurti, susmoz. Berak egiten zituen mugimendu guztien bidez, otso hura adiskidetasunera deitu nahi zuen. Baina otsoak hura ikusi zuenean, ihes egin zuen. Buckek atzetik jarraitu zion, salto eta salto, urduri. Erreka lehor baten ingurutik jarraiki zitzaion. Enbor erori batek moztu zuen bidea. Otsoak bidea moztua ikusi zuen eta hortz karraska hasi zen erasoaldiaren zain.

Buckek, ordea, ez zuen eraso: inguratu zitzaion eta adiskidetasuna eskatu zion. Otsoa gaitzikorra zen, baina Buck bera baino hiru aldiz handiagoa zen. Beraz, gutxiena uste zuenean, berriz otsoak ihesari eman zion. Eta Buck atzetik. Noizbehinka, Buck bideratzen zitzaion, eta lehen bezala otsoa hortz karraska hasten zen. Otsoa indargabetu samarra zegoen. Bestela ezin

zezakeen Buckek hain erraz harrapa. Atzetik, aurretik, nonahitik jarraitzen zion.

Bucken iraupenak azkenean poza ekarri zuen. Konturatu zen otsoa, Buckek ez ziola okerrik egin nahi. Eta geraturik, elkar usaintzen hasi ziren. Gero adiskide egin ziren, eta jolas ere egin zuten, basoko animaliak jolasten dakiten eran. Geroxeago, otsoak hanka martxa bizkor eta motz bat hasi zuen. Bucki berekin etortzeko adierazi nahi zion. Eta erreka toren ingurutik abiatu ziren, ur korrantea pasatzen zen mendi zintzurerraino. Pasa zuten hura. Bestaldeko aldapa pasa zutenean, leku zelai batekin topatu ziren. Ur korrante asko zegoen han. Inguru haietatik orduak eta orduak korri zuten, eguzkia zeru gainean ipintzen zen bitartean. Buck pozik zegoen. Bazekien, azkenik, baso deiadarrari erantzuten ziola. Oroitzapen zaharrak zetozkion burura. Bera baino aurrerago zituenak. Asaba zaharrendik zituenak. Ez zituen orain itzal hutsak ikusten, errealitateak baizik. Lehen pentsamenduan zituenak, orain hankapean sentitzen zituen.

Errekatxo baten ondoan gelditu ziren. Han zeudelarik, Buck bere nagusiaz oroitu zen. Otsoak basa-deiari erantzunik aurrera jarraitu zuen, eta Buck ere eginkizun berdinerara bultzatu nahi zuen. Baina Buck atzera itzuli zen. Ordubetik atzetik etorri zitzaion bere anaia basatia, oihuka. Ez alferrik. Gero bere muturra zerurantz jasoaz, ulua zorrotzak botatzen hasi zen. Buckek entzun ahal izan zituen, azkenik, itzuleran belarrietatik galdu zitzaizkion arte.

John Thornton afaltzen ari zen Buck itzuli zenean. Tximista bezain azkar sartu zen. Nahita, noski, bere nagusia zirikatzeagatik, eta koska bigunak eskuan eginaz. Atzeraka bota zuen nagusia honek betiko hitz zatar maitekorrek esaten zizkion bitartean.

Bi egunen buruan ez zuen kanpamendua utzi. Beti nagusiaren atzetik, hark zer egingo zuen, beti erne. Lotan zegoela. Bai jaten zegoela. Esmatzen zenean han egongo zen bere zain. Gero, ordea, berriro hasi zen goibeltzen, eta berriro ere hasi zen basa-deia entzuten. Egonezina sortu zitzaion alderdi guztietatik. Hasi zen berriro ere basoan barna joaten, baina ez zuen entzun ahal izan bere basa-lagunaren deiadarra.

Berriro hasi zen basoan lo egiten. Nonahi, zihoan bezala ehiza egin eta hura jan. Aurrera segi zuen, lehen otsoa abandonatu zuen lekuraino. Eta aurrerago. Ez zuen aurkitu. Erreka

bazterrean izokinak ere arrantzatu zituen. Aurrerago hartz beltz bat ere bertan behera azpiratu zuen. Jakia erraz biltzen zuen.

Bere odol gogoa ere gehiagotzen ari zen. Errukirik gabe hiltzen zuen. Baina bizitzeko behar zuena jateko bakarrik, ez apetaz, noski. Atsegin zitzaion bere burua garaile ikustea. Harrokeria berri bat sentitzen zuen gorputzaren alderdi guztietatik. Bere gurasoak odol oneko zakurrak izanik, hau haien oinordeko bikain eta ezin hobea atera zitzaien.

Bere indarra, bere trebetasuna, basa-legean, egur-legean eta haginkada legean ikasi zuenarekin, inguru hartan izan zitekeen animaliarik bizkorrena eta trebeenean bihurtzen zuten. Thornton jaunak bere hatzaparra lepa gainetik pasatzen zionean, ile guztia tente jartzen zitzaion, bizi soberazko guztia piztuko balitzaio bezala. Edozein gertakizunaren aurrean zer egin behar, berehala erabakitzen zuen. Eta ezin baino hobekiago.

Hala esaten zuen behin eta berriro, bere nagusi Thorntonek:

— Behin ere ez dut ikusi halako zakurrik. Harrigarria da.

— Ezta nik ere — erantzuten zuen besteak.

— Nik ere ez — hirugarrenak.

Hiru gizonak ikusi zuten askotan basotara ihes egiten. Oraingoan ere bai. Baina ez ziren ohartzen ongi, ze aldaketa sortzen zen haren gorputz barruan, behin basora sartzen zenetik. Hura ez zen joatea. Hura tximista baten ibilera zen. Itzal iheskor baten pausoa. Ondo zekien gordelekuak aprobetxatzen, lurtean, tripa gainean, sugeak bezala arrastatzen, habiatik hegaztiak harrapatzen, katagorriak eskuratzen. Arrainak ez ziren bizkorrak beretzat. Baina ez zuen hiltzeagatik hiltzen. Bizibeharrez baizik. Baina nahiago zuen berak ehizatzen zuena jan, eta ez besteengandik zetorkiona. Sarritan jolas egin ere egiten zuen. Joan ohi zen katagorrien ingururaino eta ia hortzetan zituenean, hauek ihes beldurtia egiten zuten, barregarri.

Udazkena iritsi zenean, altze (lurralde haietako animalia da) talde bat azaldu zen. Behin bat hil

zuen. Baina ez nahiko handia. Berak oraindik ere animalia handiagoak behar zituen. Hala, beste batean, ikusi zuen beste altze talde bat inguratzen. Haien buru ikaragarritzko altze arra zetorren. Ia bi metro luzeran, adarrak luzeak eta zorrotzak. Hura izan zitekeen Buck zakurrak nahi zuen bezainbateko etsaia. Buck ikusi zuenean bere bi begiak haserre bizian zuzendu zizkion eta orroa bota zion.

Saihets batetik zintzilika gezi puskatu bat zeraman. Ze horrek esan nahi baitzuen, norbaitek noizbait zauritu zuela. Baina hiltzea lortu gabe. Baina umorea txartzeko asko izan zuen. Buckek erabaki zuen hura izango zela bere hurrengo ehiza. Lan zaila, noski. Halako animaliatzar bat izanik, handia, sendoa eta basatia. Saiatu zen bada, taldetik urrutiratzen. Altze hark ikaragarritzko adarkadak botatzen zizkion. Ez alferrik. Ez baitzuen sekula ere harrapatzen. Zuhurra izaki zakurra. Eguna joan eta eguna etorri. Altzeak ezin zuen bere ingurutik zakur hura urrutiratu. Honek ere taldetik urruntzea lortzen bazuen, beste lagunak etortzen ziren taldean barneratuz. Egonarri luzeko lana. Baina hori ere bazuen Buckek. Eta horrela gozatzen zuen.

Basoko animaliak egonarri handikoak izan ohi omen dira. Bai ehizan, bai beste eginkizunetan. Egunak eta egunak geldirik egon behar baldin bada, hura egiteko gauza dira. Hori bera zuen Buckek.

Altze-talde guztia haserre zegoen, oso, haserre zakur harekin. Bere ibilera atzeratzen baitzuen, arrak haserretzeraino. Emeak ere muturtuak zebiltzan, eta altze zaurituak ezin zuen gehiago. Alferrik ziren bere adarkadak, alferrik bere ekite guztiak. Ezin zuen gehiago. Buckek gero eta grinatsuago jarraitzen zuen, non taldea izutuaz, non arra handi hura zirikatuz.

Eguna bukatzera zihoan eran, altze arrak, ez ziren jadanik hain gustura altze nagusiarengana joaten. Aspertu ziren. Negua bazetorren eta ezin zitezkeen atzeratu. Eta ezin gaineratik kendu zakur amorratu hura. Gainera ez zen talde guztia arriskuan zegoena, baizik altze zahar hura. Zer egin? Azkenik, abandonatu zuten.

Azkenik, laugarren egunean eraitsi zuen bere ehiza. Egun eta gau osoa egon zen bere harrapakin haren ondoan. Gero berriro ere, kanpamendu aldera, bere nagusiarengana itzultzea erabaki zuen. Urruti egon arren, hark ez zuen behin ere bidea galtzen. Ez zen behin

ere nahasten.

Aurrera eta aurrera zihoala, konturatzen zen, hura ez zegoela udan bezala, berak utzi zuen garai hartan bezala. Urtaroa aldatu zen, eta harekin batera bizitza guztia ere bai. Udaberria zen, begira gero zenbat denbora pasa zen. Txoriak adierazten zuten, loreak eta hego haize goxoak ere bai. Buck une batean geldirik geratu zen, goizeko haize freskoa hartzeko. Haize hark, halakoxe mezu berezi bat bidali zion. Nonbaitetik usaintzen hasi zen gertaera okerren bat. Zoritxarren bat. Dagoeneko gertatu ez bazen, edo hor nonbait. Zer ote zen bada? Azkenengo maldak gurutzatu zituenean, kanpamendu aldera abiatu zen. Baina ez azkar eta presaka, baizik eta poliki eta kontuz.

Kanpamenturako hiruren bat kilometro falta zitzaizkion. Eta aztarna berriak aurkitu zituen. Aztarna haiek bere kanpamendura eta bere nagusia bizi zen lekura zihoazen. Buckek pausoa azkartu zuen, larri zen, mila seinale berri nabaritzen zituen han. Hegaztiak ere alde eginak ziren. Basoa isilegi zegoen. Katagorriak ere beldurti ezkutatuak. Bat bakarra aurkitu zuen: lodi-lodia, gris-grisa, enbor handi baten kontra zapaldua, egurraren zati bat balitz bezala.

Zuhaitz batzuk pasa zituenean, bere sudurrak beste alde batera jirarazi zion. Indar berezi batek harantz bultzatzen izan balu bezala. Sasi batzuetaraino iritsi zen. Han zegoen Nik hilda, gezi bat zuela gorputzean alderik alde.

Ehun metro aurrerago, Buckek, Thornton-en beste zakur bat aurkitu zuen, hain zuzen Dawson-en erositakoa. Oraindik ere bizirik zegoen zakurra, azken azkenetan. Buck ez zen gelditu ere egin. Kanpamentu aldetik halakoxe zurrumurru berezi bat iristen zen, abesti monotono bat izango balitz bezala. Arrastaka-arrastaka zihoala Hans aurkitu zuen. Hura ere hilda, geziaz josia eta ahoz behera. Une hartan, lehen kanpamentua zen lekura begira jarri zen. Han ikusi zuenak, bere ile guztiak dardarka jarri zizkion. Amorratio bizi batek heldu zion gorputz guztitik. Ikaragarritzko orroa bota zuen. Burua galdu zuen.

Etxolaren ondoan yeehats izeneko indioak dantza eta balantza ari ziren, halako batetan orro ikaragarri hura entzun zutenean. Berehala, bere gain eta ustekabea, animalia handi eta ezezagun bat etorri zitzaien, amorratio bizirik josia. Basa piztirik txarrena baino okerragoa zen. Buck

bera.

Buckek ikusi zuen indiarren artean bat, besteen gainera jarrita. Haien jauntxoak izan behar zuen, zirudienez. Haren gain erori zen, azkarki. Lurrera bota zuen hankaz gora. Etsai guztiak nahasi ziren, zer gertatzen zen ere ia ez zekitelako. Izutu ziren. Beren burua hilda lepoa odolduta zegoen lurrean. Indioek beldur larri hartan, batzuek bere burua hil zuten geziz eta lantzaz, besteak Bucken hortz errukigabeen artean hil ziren, puskatuak.

Buck deabru bat zen, deabru gorri bat. Yeehats guztiak, basamortuan barna sakabanatu ziren, norantz ez zekitelako. Beldur hark eraginda ez zuten astebetean berriro elkartzerik izan. Urrutiko zelai batean elkartu ziren berriro, hilak kontatzeko, eta jauntxo berria hautatzeko.

Buckek jazarri zituen alde guztietan. Gero berriro itzuli zen kanpamendura. Pete maindire artean hila zegoen. Ez zitzaien hain erraza izan, zirudienez, Thornton jauna hiltzea. Haren oinatzak ibai bateraino iristen ziren. Haraino ihesi joan zen zirudienez, atzera eta atzera. Han galtzen ziren bere arrastoak. Seguru asko ur azpian egongo zen, zeren Buckek ere ez baitzuen haren seinalerik aurkitu.

Buckek egun guztia ibai haren ondoan pasa zuen, negar batean, lasai ez. Ondo zekien bere nagusi Thornton hila zegoela ur azpi haietan. Hutsune ikaragarria nabaritzen zuen bere barruan. Gosea baino ere sakonagoa. Batzuetan, amorrazioak belarriak ere gorri-gorri jartzen zizkionean, yeeths hilak zeuden lekuraino joan ohi zen, uluka eta biraokaoka. Harro, berak hil zituelako. Sekula baino harroago. Ez zuen behin ere gizonik hil. Eta bera egin zitzaion gauzarik errazena. Otso zakurra hiltzea mila bider zailagoa da. Ez balitu bere eskutan, zigorrak, makilak, laster eraitsiko luke. Baina aurrerantzean ez zuen uste haien beldur izango zenik. A! hori bai, ikusten bazituen geziekin, eskumakilekin edo zigorrarekin, orduan gauzak asko aldatzen ziren. Gaua iritsi zen. Ilargi amandrea, zeruaren erdian zegoen. Zeruko berri onak bidaliaz. Basoak, deiadar berezi bat zuen orain Buckentzat. Entzuten eta usaintzen gelditu zen. Urrutitik ulua bereziak nabari zituen, lehen ere entzunak zituen haren antzekoak. Baina uluak gero eta garbiago entzuten ziren. Bere buruan hainbat aldiz amets egindako ulua haiek berak ziren, baina orain errealitatean.

Dardaraz abiatu zen harantz. Zelai erdian gelditu zen, ilargi garbia ikusten zen lekune batean. Berari deitzen zioten. Haren esana bete behar zuen. John Thornton jauna hila zegoen, eta azkeneko katea ere hautsia zuen. Gizonaren maitasunak ez zuen gehiago inoiz inola lotuko. Ehizaren atzetik, otsoak urrutitik etorri ziren halako batean Bucken erresumara. Ilargiaren mantupean iritsi ziren. Buck, erdi erdian zegoen, hari begira, mirespen batean, geldirik, haien zain. Otsoak harritu ere egin ziren hain handia eta hain geldirik ikusi zutenean. Une batean denak isildu ziren. Gero, ordea, haien arteko ausartena gainera bota zitzaion. Tximista batek baino bizkorrago erantzun zion Buckek, eta garondoa moztu zion koska batean. Gero, berriz ere, ezer gertatu ez balitz bezala, lehengo posturan jarri zen, geldi geldirik, ilargiari begira, ondoan otso erdi hila zuela. Geroxeago beste hiru otso ausartu ziren hura erasotzera. Hirurak, odolduta atzera egin zuten. Hori ikusi zuten besteek, eta ezin eramanik, denak batera haren kontra bota ziren. Baina Buck, guzti haiek baino arinagoa zen. Bere atzeko hanken gainean jarriarik, eskuin ezker izugarritzko haginkadak botatzen zituen. Denak batera ez ziren nahiko hura menderatzeko. Erreka bidetik atzera eta atzera ekin zuen, nahita. Hantxe bazegoen lur mutur bat. Han babestu zen. Orain aski zuen aurretik zetozenen kontra bakarrik borroka egitea. Saihetsetan urak babesten baitzuen.

Biziki otsoak atzera jo zuten. Ezin zuten haren kontra. Denak nekatuak zeuden, beren mingaina ia lurrerraino iristen zelarik. Bere hagin zuriak ilargipean dir-dir egiten zutelarik. Batzuek Bucki begira gelditu ziren, besteak ura edaten. Geroxeago, otso zahar eta ihar bat inguratu zitzaion. Buckek laster ezagutu zuen. Hura baitzen, berak behin basoan ikusi zuen otsoa, hura bera. Otsoak oihu arin batzuk egiten zituen. Eta erantzuna hartu zuenean, Bucken muturra milizkatu zuen.

Gero beste otso zahar eta ihar bat inguratu zen. Buckek ez zekien edota erasoko zion edota zertara ote zetorren. Inguratzean ordea, Bucken muturraren kontra marruskatu zuen berea. Eseri zen, altxa zuen burua zerurantz eta garrasi egin zuen. Besteek berdin egin zuten. Orain bai, Buckek ulertu zuen deiadar hura. Bera ere eseri zen eta berak ere garrasi egin zuen. Zeremonia hura bukatu zenean, otso guztiak inguratu zuten Buck, begira eta aztertuz. Buru egiten zutenak aurretik abiatu ziren basoan barna, atzetik talde guztia zihoalarik. Denak ulua egiten zuten, guztiak batera. Buck ere haiekin abiatu zen, basoko anaiekin batera, haiek bezala ulua eginaz.

Hemen buka zitekeen Bucken historia. Urte asko pasa baino lehen yeehats indioak konturatu ziren, basoko otsoen arraza zerbait aldatua zetorrela. Buru gainean, eta muturrean mantxa ilun batzuk zituzten. Eta bularrean ile-mataza zuria. Baina yeehats haiek gogoan dute oraindik zakur fantasma haren erasoaldia. Beti taldearen aurretik joaten omen da. Haren beldur dira. Beste guztiak baino bizkorragoa da eta negu gorrian, janariak osten dizkie. Haiek jarritako tranpa guztiak ez dute ezertarako balio eta ehiztariak ere sekula ezin dute txakur haren kontra ezer egin.

Are eta gehiago. Ba omen dira ehiztariak sekula etxera itzultzen ez direnak. Haietako batzuk lepoko zainak ebakita topatu dituzte. Baina ez omen dira otso normal baten haginak, handiagoak eta zorrotzagoak omen dira. Udazkenetan, yeehats horiek, altze basabereen atzetik doazenean, erne ibiltzen dira otsoekin eta Buckekin ez topatzeko. Emakumeak ere triste jartzen dira, leku hura espiritu gaiztoen zelaia dela esaten dietenean.

Uda etortzen denean, bisitari ezezagun bat joaten da leku hartara. Ile eder eta argiko otso bat da. Bakarrik jaisten da. Basoak igarota gero, ibai baten ondoan pasatzen du egun guztia. Haien inguruan ba omen daude oraindik ere gamuzazko zaku batzuk, metal horiz beteak. Baina guztiak gaintetik belar berde batek estaltzen ditu. Han egon ohi da otso handi hori, uluka.

Baina ez omen dago beti bakarrik. Neguko gau gorritan, otsoak goitik behera janari bila datozenean, hura etortzen da guztien buru. Guztiak baino nagusiagoa, harroagoa, ederragoa, ilargi argipean edota egunsenti borealpean. Bere muturra gora begira jartzen omen du, eta aspaldi aspaldiko kantu ulua botatzen omen du: talde guztiaren abesti zahar, triste eta misteriotsua.